Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko apirilaren 11, osteguna — 70 — Jueves, a 11 de abril de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*2024ko Zerga Egiaztapenerako Plana*

2024ko Zerga Egiaztapenerako Plana onartu du Ogasun eta Finantza Departamentuak 2024ko martxoaren 15eko 122/2024 Foru Aginduaren bidez. Azken horren eranskin gisa, 2023ko Ikuskaritza Plana eta horri buruzko irizpide orokorrak jasota daude.

2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako zergen Foru Arau Orokorrak, 112. artikuluan jasotakoa betez, Zerga Egiaztapenerako Planak eta horren eranskinak izaera erreserbatua dute, baina ez, ordea, hari buruzko irizpide orokorrak. Hori dela eta, jarraian azken horiek argitaratuko dira.

Donostia, 2024ko martxoaren 18a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko idazkari teknikoa. (2508)

*Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2024. urteko Zerga Egiaztapenerako Planaren irizpide orokorrak.*

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan, Ogasun eta Finantza Departamentua da Ekonomia Ituna garatu eta gauzatzeko eskumena duen organoa, bai araugintza lanaren bitartez bai tributuen kudeaketa, ikuskapena, bilketa eta berrikuspena eginez.

Arauak emateko ahalmenak aberastasuna hobeto birbanatzeko eta Gipuzkoako ekonomia bultzatzeko tresna izan behar du, eragileengan segurtasuna eta egonkortasuna sortuz.

Gainera, Ekonomia Itunak behar diren baliabideak eskaini behar ditu erakunde maila desberdinetarako, zerbitzu publikoak mantentzea bermatzeko.

Baliabide horiek eskura jartzen dituen zerga sistemak printzipio hauek errespetatu behar ditu beti: justizia, berdintasuna, progresibitatea, zama tributarioaren banaketa ekitatiboa, eta ez-konfiskagarritasuna.

Testuinguru horretan, 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 112. artikuluan dio urtean behin Zerga Egiaztapenerako Plan bat prestatu beharko dela, eta haren barruan Ikuskapen Plana ere sartu. Izan ere, hura da Ogasun eta Finantza Departamentuak baliatzen duen tresna unitate desberdinetatik zerga iruzurraren aurka urtero egiten den lana bultzatu, koordinatu eta antolatzeko.

2019-2024 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoak Ogasun eta Finantza Departamentuari esleitu dizkion helburu eta lerro estrategikoen barruan, 2024. urteko Zerga Egiaztapenerako Plan hau prestatzeari ekin zaio.

Plan hori gizarte osoaren eta, bereziki, jarduera ekonomikoaren digitalizazio gero eta handiagoa gertatzen ari den testuinguruan kokatzen da, non negozio berriak sortzen, merkatu

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Plan de Comprobación Tributaria para el año 2024*

Por Orden Foral 122/2024 de 15 de marzo del Departamento de Hacienda y Finanzas, se ha aprobado el Plan de Comprobación Tributaria para el año 2024, que incluye como anexo el Plan de Inspección del ejercicio 2024, así como los criterios generales que lo informan.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 112 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria, el Plan de Comprobación Tributaria y su anexo tienen carácter reservado. No así los criterios generales que lo informan, que se publican a continuación.

San Sebastián, a 18 de marzo de 2024.—La secretaria técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas. (2508)

*Criterios generales del Plan de Comprobación Tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas para el ejercicio 2024.*

INTRODUCCIÓN

El Departamento de Hacienda y Finanzas es el órgano competente dentro de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo y ejecución del Concierto Económico, mediante el desarrollo normativo, así como la gestión, inspección, recaudación y revisión de los tributos.

La capacidad normativa ha de ser instrumento para lograr una mejor redistribución de la riqueza, así como para el impulso de la economía de Gipuzkoa, generando seguridad y estabilidad en los diferentes agentes.

Además, el Concierto Económico ha de proveer los recursos suficientes para los diferentes niveles institucionales que garanticen el sostenimiento de los servicios públicos.

El sistema tributario que provee dichos recursos debe respetar los principios de justicia, igualdad, progresividad, equitativa distribución de la carga tributaria y no confiscatoriedad.

En este contexto, el artículo 112 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, contempla la elaboración anual de un Plan de Comprobación Tributaria que incluirá un Plan de Inspección. Esta es, pues, la herramienta de que se dota el Departamento de Hacienda y Finanzas para impulsar, coordinar y ordenar la actuación anual de las distintas unidades en la lucha contra el fraude.

Dentro del marco de los objetivos y líneas estratégicas del Plan Estratégico de Gestión 2019-2024 encomendados al Departamento de Hacienda y Finanzas, se procede a la elaboración del Plan de Comprobación Tributaria para el año 2024.

Dicho plan, se contextualiza en un entorno marcado por el creciente avance de la digitalización de la sociedad en su conjunto y de la actividad económica en particular, que está llevando a

EK\CV GAO-I-2024-02508

eta txanpon digital berrietara irekitzen, eta teknologia berriak ezagutzen ari baitira. Testuinguru horretan, informazioak badu, eduki ere, balio handiagoa.

Bestalde, 2022ko uztailean hasi zen TicketBAI proiektua, 2023ko ekainera bitarte zergadunak apurka-apurka barruan hartuz joan dena, mugarri bat izango da informazioaren kudeaketan, zerga betebeharrak betetzeko laguntzan eta Gipuzkoako Foru Ogasunak iruzurraren aurka egiten duen borrokan.

Egoera hori kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Plan Bateratua prestatu da.

Eusko Legebiltzarraren 2013ko irailaren 26ko bilkurako ekimenean, zeinaren bitartez 6. ebazpena onetsi baitzen, «beharrezkotzat jotzen da Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordea sortzea, Iruzurraren aurka borrokatzeko Plan Bateratua prestatu dezan Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan eta hiru lurralde historikoek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartuta». Ekimen horretan koordinazio tresna berri bat izateko beharra planteatu zen, oraingo honetan foru ogasunen jarduketak koordinatzeko. Legebiltzarraren ebazpena betez, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren (EZKO) 2013ko urriaren erabakiaren bitartez, Euskadiko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea sortu zen, zeinari, beste eginkizun batzuen artean, urtero Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratu bat prestatzea enkargatu baitzitzaion. Bertan esaten da ezen, irizpide orokorrak zehazteaz gainera, Plan Bateratuak foru aldundiek gauzatu beharreko jarduketa koordinatuak hartu behar dituela kontuan, eta jarduketa horien artean egongo direla informazioa lortzeko ekintzak, prebentzioaren ingurukoak eta erregularizazio eta kobrantza ekintzak.

Foru aldundiek zerga iruzurraren aurka borrokatzeko eta zergak egiaztatzeko banakako planak egitea eragotzi gabe, eta arlo horretan esleitu zaigun eskumena garatzeko autonomiaren kalterik gabe, irizpide orokorra da zerga iruzurrari aurre egiteko politika eta estrategia bateratuak garatu behar direla eta haien eraginkortasuna indartu egingo dela zerga administrazioan eskudun diren erakundeen artean aliantzak eginez eta lankidetza harremanak ezarriz. Izatez, nazioartean, azken urteotan inoiz baino nabarmenagoa da kezka nagusia dela iruzurraren aurkako estrategia bateratuak ezartzea baina ez jurisdikzio bakarra hartuta, eskala handiagoan baizik, eta, alde horretatik, nabariak dira Europako Batzordearen eta ELGA/G20ren ekimenen ondorioz egin diren aurrerapenak.

Foru ogasunen jarduketen programazio bateratua behin finkatuta, Gipuzkoako Foru Ogasunaren Egiaztapen Planak eta haren Ikuskapen Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzurraren aurkako Borrokarako Plan Bateratuaren egitura bera dute, eta horrekin erraztu nahi izan da EAEren esparruan zerga iruzurrari aurre egiteko hartzen diren ekimen eta neurriak gardenak eta ulergarriak izatea eta haien neurketa sinplifikatzea.

Zentzu horretan, zerga iruzurraren aurkako jarduketak hiru kategoria handitan sailkatuta daude:

A) Informazioa lortzeko jarduketak, hau da, zerga arloan garrantzia duen informazioa lortzera, normalizatzera eta aztertzera bideratutako jarduketak, zergadunak bere zerga obligazioak bere kabuz bete ditzan errazteko, aitortutako datuen inkongruentziak antzemateko eta tributuak aplikatzeko prozeduren xede izango diren zergapekoen hautaketa hobetzeko. Ondorioz, era honetako jarduketak funtsezkoak dira edozein tributu administraziotarako, baldin eta eraginkortasunez jardun nahi badu iruzur fiskalaren kontra.

B) Prebentzio jarduketak, hau da, izaera askotako neurriak, iruzur egitea zaildu eta iruzur arriskuak murriztea helburu dutenak. Neurri horien barruan daude arrisku fiskaleko egoera jakin batzuetara sartzeko kontrolak, zerga jardunbide egokiak

la creación de nuevos negocios, la apertura a nuevos mercados y monedas digitales, y el acceso a nuevas tecnologías. En este contexto la información, si cabe, tiene incluso un mayor valor.

Por otro lado, el proyecto TicketBAI, iniciado en julio de 2022, y con una escalada incorporación de los obligados tributarios hasta junio de 2023, va a suponer también un antes y un después en la gestión de la información, en la ayuda para el cumplimiento de las obligaciones tributarias, así como en la lucha contra el fraude por parte de la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta esta coyuntura, se ha elaborado el Plan Conjunto de lucha contra el fraude fiscal del País Vasco.

La iniciativa del Parlamento Vasco en sesión celebrada el día 26 de septiembre de 2013, que aprobó la resolución número 6 por la que «considera necesaria la Creación de la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal, encargada de elaborar el Plan Conjunto de lucha contra el fraude, con la participación de los tres Territorios Históricos y el Gobierno Vasco, en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria» planteó la necesidad de contar con una nueva herramienta de coordinación, esta vez de las actuaciones de las Haciendas Forales. Dando cumplimiento a la resolución parlamentaria, mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE) de 14 de octubre de 2013, se creó la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco, a la que se encomienda entre otras funciones la elaboración anual de un Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal. Se prescribe que, además de determinar sus criterios generales, el Plan Conjunto debe contemplar las actuaciones coordinadas a realizar por las Diputaciones Forales, que en todo caso contendrán acciones de obtención de información, acciones preventivas y acciones de regularización y cobro.

Sin perjuicio de la elaboración por parte de las Diputaciones Forales de sus planes individuales de lucha contra el fraude y de comprobación tributaria, y de la autonomía en el desarrollo de la competencia que tenemos asignada en esta materia, existe un consenso general sobre la conveniencia de desarrollar políticas y estrategias conjuntas para combatir el fraude fiscal y se considera que su eficacia se verá reforzada forjando alianzas y estrechando lazos de cooperación entre las instituciones competentes en el ámbito de la administración tributaria. En el ámbito internacional, de hecho, es patente, en los últimos años más que nunca, la preocupación por establecer estrategias conjuntas contra el fraude a una escala mayor que la de una única jurisdicción y son notorios los progresos derivados de las iniciativas de la Comisión Europea y la OCDE/G20.

Consolidada la práctica de la programación conjunta de actuaciones de las Haciendas Forales, tanto el Plan de Comprobación como el Plan de Inspección de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, tienen la misma estructura establecida para el Plan Conjunto de lucha contra el Fraude del País Vasco con la finalidad de facilitar la transparencia y comprensión del conjunto de las iniciativas y medidas que se desarrollan para la lucha contra el fraude en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, así como de simplificar su medición.

En ese sentido, las actuaciones de lucha contra el fraude se clasifican en tres grandes categorías:

A) Actuaciones de obtención de información, entendiendo como tales aquellas actuaciones dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con trascendencia tributaria, con el fin de facilitar a la persona contribuyente el cumplimiento espontáneo de sus obligaciones tributarias, detectar las incongruencias de los datos declarados y mejorar la selección de los obligados tributarios que vayan a ser objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos. En consecuencia, estas actuaciones son fundamentales para cualquier Administración Tributaria que pretenda ser eficiente en la lucha contra el fraude.

B) Actuaciones preventivas, entendiendo como tales aquellas medidas de naturaleza diversa que tratan de dificultar la comisión de fraude y minorar los riesgos de que se produzca. Incluyen desde controles de acceso a determinadas situaciones


EK\CV GAO-I-2024-02508

sustatzeko jarduketak eta balio zibiko-tributarioak hezkuntzan eta kontzientzian txertatzera bideratutakoak. Horiek modu egokian ezartzeak ahalbidetuko du zergapekoen iruzur jokabideak ekiditea, halakoak praktikatzeari aurrea hartuz.

Prebentzio jarduketek ez dute, bere horretan, iruzurtutako zenbatekorik azaleratuko, iruzur hori ez gertatzea baitute xede. Gure iritziz, horrek izan beharko luke egoera hoberena Zerga Administrazio ororentzat: hau da, iruzurrik ez egitea. Eta horretarako, hiru lan ildo nagusi jorratzen ditugu:

i) Herritarrak bidezko tributuen garrantziaz jabetzeko ekintzak antolatzea, zerga betebeharrak borondatez betetzea erraztuz.

ii) Iruzurra egin aurretik hura detektatu eta galaraztea ahalbidetuko duten kontrolak ezartzea; eta

iii) Iruzurgile potentzialak beren zerga betebeharrak borondatez betetzea komeni dela konbentzitzeko neurriak hartzea.

Aurrekoarekin bat etorriz, komeni da prebentzio jarduketen garrantzia ezagutaraztea, ebaluatzen zailagoak diren aldetik, kontuan izanik haietako askok ez dutela berehalako emaitzarik, eta, hala ere, funtsezkoak direla iruzurrerako joera egitura mailan murrizteko; gainera, zuzeneko isla dute erregularizazio eta kobrantza jarduketetan: iruzurra prebenitzen bada, iruzurrik egiten ez bada, ez da beharrezkoa baliabideak erabiltzea erregularizazio eta kobrantza jarduketak egiteko.

C) Erregularizazio eta kobrantza jarduketak, hau da, Foru Ogasunen kudeaketa eta ikuskaritza organoek tributuen aplikazio prozeduren barruan zergapekoen egoera fiskala egiaztatzera, ikertzera eta, hala badagokio, erregularizatzera bideratutako jarduketak. Horien artean sartzen dira Foru Ogasunen bilketa organoek garatzen dituzten jarduketak ere, zergapekoak izan ditzaketen zorren ordainketa lortzea xede dutenak, bai horretarako ezarritako borondatezko epean, bai epe exekutiboan.

Azken urteotan, prebentzio jarduketak erregularizazio eta kobrantza jarduketak baino gehiago sustatzeko estrategia horrek berekin ekarri beharko luke azaleratutako iruzurrak pisu gutxiago izatea eta borondatezko epealdian egiten den zerga-bilketak gora egitea.

Jarduketa horiek gauzatzeko, garrantzitsua da informazioaren tratamendurako beharrezko diren garapen teknologikoak izatea, foru ogasun bakoitzean tributuak aplikatzeko organoek koordinazioz jardutea eta hiru foru ogasunak elkarrekin eta beste organismo edo entitate batzuekin elkarlanean aritzea.

Informazioa lortu eta aztertzearen arloan, azken urteetan bezala, helburu nagusia datuaren kalitatea bermatzea da, eta 2024an zehar erroldak egiteko erabiltzen dugun informazioa lortzeko aitorpenetan zentratuko dira jarduketak, hori baita zerga kudeaketako prozesu guztien eta departamentuak iruzurraren aurka egiten dituen kontrol eta borroka jarduketen abiapuntua. Jardueraren helbidea ezinbesteko elementua da zergadunen analisia eta kontrola egiteko, aukera ematen baitu jarduera non egiten den xehetasunez ezagutzeko.

Halaber, Gipuzkoako herrietan garatzen diren jardueren georreferentziazioak aukera emango du analisi espaziala mapa bisoreekin egiteko, eta horrek hainbat datu emango dizkie erabiltzaile mota desberdinei.

Aurten martxan jarriko da adimen artifizialeko laugarren belaunaldiko Big Data plataforma berria, informazioaren lehen analisiak ikuspegi berriekin egitea ahalbidetuko duena. Teknologia berri horri esker, datuen tratamendu masiborako estrategia berria jarriko dugu martxan, eta estrategia horrek departamentuaren etorkizuna markatuko du bai zergadunei beren betebehar fiskalak errazteko ematen zaizkien zerbitzu berrietan, bai

de riesgo fiscal hasta actuaciones de promoción de buenas prácticas tributarias y concienciación y educación en valores cívico-tributarios. Su correcta implantación permitirá evitar la realización de actuaciones fraudulentas de los obligados tributarios, adelantándonos a su comisión.

Las actuaciones preventivas, en sí mismas, no van a proporcionar ningún importe de fraude aflorado, ya que su objetivo es evitar que se produzca dicho fraude. Entendemos que éste debería ser el escenario óptimo para cualquier Administración Tributaria: evitar la comisión del fraude. Y para ello, seguimos tres líneas principales de trabajo:

i) Acciones para que la ciudadanía entienda la importancia de unos tributos justos, facilitándoles asimismo el cumplimiento voluntario de sus obligaciones fiscales.

ii) Establecimiento de controles que permitan detectar y evitar la comisión del fraude antes de que se produzca y

iii) Adopción de medidas que persuadan a las personas potenciales defraudadoras de la conveniencia de cumplir voluntariamente sus obligaciones tributarias.

De acuerdo con lo anterior, es conveniente transmitir la importancia de las actuaciones preventivas, más difíciles de evaluar, porque muchas de ellas no tienen un resultado inmediato, pero son fundamentales para reducir de forma estructural la propensión al fraude y tienen un reflejo directo en las actuaciones de regularización y cobro: si se previene el fraude, si no se comete, se hace innecesaria la dedicación de recursos para realizar actuaciones de regularización y cobro.

C) Actuaciones de regularización y cobro, que son aquellas actuaciones encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación fiscal de los obligados tributarios objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos desarrollados por los órganos de gestión e inspección de las Haciendas Forales, así como aquellas actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación de las Haciendas Forales para obtener el pago de las deudas de los obligados tributarios, tanto en período voluntario como en período ejecutivo.

Durante los últimos años esta estrategia de potenciar las actuaciones preventivas frente a las actuaciones de regularización y cobro, debería traducirse en un menor peso del fraude aflorado, frente a un incremento de la recaudación en periodo voluntario.

Para la ejecución de estas actuaciones son importantes, tanto los desarrollos tecnológicos necesarios para el tratamiento de la información, como la coordinación de los órganos de aplicación de los tributos dentro de cada Hacienda Foral y la colaboración interinstitucional entre las tres Haciendas Forales y con otros organismos o entidades.

En el área de obtención y análisis de la información, como en los últimos años, el objetivo principal es asegurar la calidad del dato, y durante 2024 las actuaciones se centrarán en las declaraciones en las que se obtienen la información con la que elaboramos los censos, punto de partida de todos los procesos de la gestión tributaria y de las actuaciones de control y lucha contra el fraude que realiza el Departamento. El domicilio de la actividad es un elemento imprescindible para el análisis y control tributario de los contribuyentes, puesto que permitirá conocer con exactitud el lugar donde se desarrolla la actividad.

Asimismo, la georreferenciación de las actividades desarrolladas en los municipios de Gipuzkoa posibilitará el análisis espacial mediante visores de mapas que proveerá de datos a diferentes tipos de usuarios.

La nueva plataforma de cuarta generación Big Data e inteligencia artificial se pondrá en producción este año, lo que va a permitir realizar los primeros análisis de la información con nuevos enfoques. Con esta nueva tecnología pondremos en marcha la nueva estrategia en el tratamiento masivo de los datos, que marcará el futuro del Departamento: en los nuevos servicios que se presten a los contribuyentes para facilitarles sus obligaciones

EK\CV GAO-I-2024-02508

iruzur fiskala dakarten anomalien bilaketan, eta bai departamentuak eskura duen informazio ekonomikoaren ustiapen estatistikoan. Hori guztia Gipuzkoako enpresa sarearen onurarako izango da, Aldundiak Gipuzkoaren digitalizazioari laguntzeko egindako apustuaren ondorioz.

Testuinguru horretan, 2024an Gipuzkoako Foru Aldundiak balioan jarriko du lurraldeko enpresariek TicketBAIrekin digitalizaziorako egin duten ahalegina eta enpresa sareari balio erantsia itzuliko dio, adierazle ekonomiko pertsonalizatuak eta jarduera sektorearen araberakoak emango dituen lehen erakundea izango baita.

(TDB) TicketBAIren datuen behatoki hori ekimen estrategiko gisa sortu da, eta Gipuzkoako jarduera ekonomikoen egoera islatzen duten datu garrantzitsuak bildu, analizatu eta ikusteko plataforma integral bat izatea du helburu, informazio iturri berri honen bidez eskuratutako datuetan oinarrituta.

Behatoki horrek datuen zentro zentralizatu irisgarri bat izan behar du, hainbat iturritako informazioa bildu behar duena, eta, batik bat, jaulkitako faktura bakoitzeko TicketBAIra behartutakoek XML fitxategian bidaltzen duten informazioa. Behatokiaren helburua da ikuspegi argi eta eguneratua ematea lurraldeko jarduera ekonomikoen bilakaeraren inguruan, erabiltzaileek analisi zehatzak egin eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak har ditzaten.

Teknologia aurreratuak eta metodologia analitikoak konbinatuta, behatokia plataforma balioaniztun eta moldakor gisa planteatzen da, erabiltzaile profil desberdinen beharrei erantzuteko, izan zergadunak, izan administrazioak, izan gizartea, oro har. Interfaze intuitiboa eta bisualizazio tresna dinamikoak lortu behar dira, behatokiak esperientzia aberasgarri eta pertsonalizatua eskaini eta datu ekonomikoen ustiapena eta ulergarritasuna erraztu ditzan.

Laburbilduz, behatokiak aurrerapen nabarmen bat izan behar erabilgarri dauden datu ekonomikoen kudeaketan eta aprobetxamenduan, gardentasuna, eraginkortasuna eta datu sendo eta eguneratuetan oinarritutako erabakiak hartzea sustatuko dituelako.

Bere helburu nagusiak hauek dira:

1. Enpresa sarea aztertzea: Gipuzkoako enpresa sarearen bilakaera aztertzeko tresnak ematea, Foru Ogasunean eskuragarri dauden datuak baliatuta.

2. Zergaduna ahalduntzea: TicketBAI erabiltzen duten zergadunei tresnak eskaintzea beren jarduera ekonomikoa aztertu eta sektoreko datuekin alderatzeko.

3. TicketBAI proiektua balioan jartzea: TicketBAI proiektuak gizartearentzat eta zergadunentzat duen garrantzia azpimarratu behar da, kontuan hartuta zergadunei denbora errealean ematen dizkiela jarduera ekonomiko bakoitzaren fakturazioari buruzko azken datuak, horiek aztertzea eta era kontrolatuan zabaltzea ahalbidetzeaz gain.

4. Datu irekia sustatzea: Interes orokorreko datuen katalogoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren datu irekien plataforman argitaratuko dira, betiere datuaren anonimotasuna bermatuz.

Informazioa lortzeari buruzko apartatu honetan, funtsezkotzat joko dira informazioaren gardentasunari esker zerga betebeharren betetze maila hobetzeko egiten diren jarduketa guztiak, eta horretarako, arazketa lanak egiten jarraitzeaz gainera, zergadunaren informazio eta laguntza zentsalaren kalitatea hobetzen ari da, horretarako beharrezkoak diren proiektu teknologikoen bitartez.

Zergadunak jasotzen duen laguntzari eta haren zerga betebeharrak betetzeko era errazteari dagokionez, aurten ere Zergabidea plataforma garatzen jarraituko da, eta helburua da 2024ko ekitaldian autolikidazio guztien integrazioa amaitzea eta behar

fiscales, en la búsqueda de anomalías que impliquen fraude fiscal y en la explotación estadística de la información económica que dispone el Departamento, que revertirá al entramado empresarial guipuzcoano, todo ello fruto de la apuesta realizada por la Diputación en acompañar a la digitalización de Gipuzkoa.

En este contexto, 2024 será el año en que la Diputación Foral de Gipuzkoa pondrá en valor el esfuerzo de digitalización que ha hecho el conjunto de empresarios del territorio con la implantación de TicketBAI y retornará valor añadido al tejido empresarial, siendo la primera Institución que ofrezca indicadores económicos personalizados y de forma agregada por sectores de actividad.

Este proyecto, el Observatorio del dato TicketBAI (OTB), emerge como una iniciativa estratégica que busca proporcionar una plataforma integral para la recopilación, análisis y visualización de datos relevantes que reflejen el estado de las actividades económicas en Gipuzkoa, en función de los datos obtenidos a través de esta nueva fuente de información.

El OTB debe ser un centro de datos centralizado y accesible, que integre información proveniente de diversas fuentes, siendo la principal la información proporcionada por los obligados TicketBAI mediante el envío de un fichero XML por cada factura emitida. El OTB persigue proporcionar una visión clara y actualizada de la evolución de las actividades económicas del territorio, permitiendo a los usuarios realizar análisis detallados y tomar decisiones basadas en evidencias concretas.

A través de una combinación de tecnologías avanzadas y metodologías analíticas, el OTB se plantea como una plataforma versátil y adaptable, capaz de satisfacer las necesidades de diferentes perfiles de usuario, desde contribuyentes, las administraciones y la sociedad en general. Se debe conseguir una interfaz intuitiva y herramientas de visualización dinámicas, logrando que el OTB brinde una experiencia de usuario rica y personalizada, y facilite la exploración y comprensión de los datos económicos.

En conclusión, el OTB debe representar un avance significativo en la gestión y aprovechamiento de los datos económicos disponibles, al promover la transparencia, la eficiencia y la toma de decisiones fundamentadas en datos sólidos y actualizados.

Sus objetivos principales son:

1. Análisis del Tejido Empresarial: Proporcionar herramientas para analizar la evolución del tejido empresarial guipuzcoano aprovechando los datos disponibles en la Hacienda Foral.

2. Empoderamiento del Contribuyente: Ofrecer a los contribuyentes de TicketBAI herramientas para analizar su actividad económica y compararla con datos de su sector.

3. Poner en Valor el Proyecto TicketBAI: Subrayar la relevancia del proyecto TicketBAI para la sociedad y los obligados, al proveer a estos últimos datos sobre la facturación de cada actividad económica en tiempo real, posibilitando su análisis y difusión de manera controlada.

4. Fomento del Dato Abierto: Publicar catálogos de datos de interés general en la plataforma de datos abiertos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, garantizando la anonimización del dato.

En este apartado de obtención de información, se considerarán primordiales todas las actuaciones dirigidas a mejorar el cumplimiento tributario, mediante la transparencia de la información y para ello se siguen realizando actuaciones dirigidas a la depuración, mejora de la calidad de la información y asistencia censal del contribuyente, abordando los proyectos tecnológicos necesarios para esta finalidad.

Respecto a la asistencia al contribuyente y la atención para facilitar el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, se continúa en el desarrollo de la plataforma Zergabidea, con el objetivo de que en el ejercicio 2024, además de finalizar con la in-

EK\CV GAO-I-2024-02508

diren hobekuntzak sartzea ematen den zerbitzua irisgarriagoa eta errazagoa izan dadin likidazioak Ogasunean dauden datuekin prestatzeko garaian. Era berean, aurkezpena erraza eta sinplea izatea lortu nahi da, kolektibo desberdinei egokituta egotea.

Zerga kudeaketako profesionalentzat Zergabidea plataforman definituta dauden funtzionalitateak hobetzen jarraitzen da, ordezkatuen kudeaketa errazteko.

Lehendik emandako urratsekin jarraituz, aurrera egingo da kanal anitzeko arretan, eta nahi duten zergadunei tresna digitalak eskainiko zaizkie zerga betebeharrak erraz bete ditzaten. Bestetik, teknologia horiek aprobetxatuko dira (Zergabidea plataforma) zerga arretako langileek modu presentzialean egin ditzaten zergadunen autolikidazioak (autolikidazio lagunduak). Errenta kanpainaren kasuan, errenta mekanizatuaren zerbitzua ematen jarraituko da, Ogasuneko bulego desberdinetan dauden teknikarien bidez. Horrez gain, ahalbidetuko da gaituta dauden funtzionarioek lagundutako autolikidazioan ordaintzeko aukera txertatzea hala eskatzen den autolikidazioetan.

Bestalde, TicketBAI proiektua aurreneko pausua da jarduera ekonomikoak egiten dituzten eta 2023ko ekainaren 1az geroztik fakturen informazioa sistema horren bitartez bidaltzen duten pertsona edo entitateen tributazioa modu integralean kontrolatzeko.

Proiektua abian jarri denetik, gure arreta gunea izan da garatzaile informatikoei eta zergadunei asistentzia ematea, sistemaren balioztapenak ez betetzeagatik gertatzen diren akatsak eta errefusak minimizatzeko. Hainbat ekintza proaktibo egiten ari dira jasotzen dugun informazioaren kalitatea bermatzeko, funtsezkoa baita hori proiektuaren hurrengo faseak abian jartzeko eta zergadunek bidaltzen diguten informazioa modu erraz eta seguruan ustiatzea ahalbidetuko dieten tresna informatikoak eskaintzeko.

2024an, zergadunek fakturazio prozesua informatizatzearen abantailak ikusi ahal izango dituzte. Beren salmentak kontrolatzen lagunduko dieten zerrendak lortzeaz gain, BEZaren hiru hilen behingo 300 ereduaren kalkulagailu bat izango dute, jasanarazitako BEZari dagokionez.

Gure lurraldean TicketBAI erabiltzen duten 42.000 negozio baino gehiagori laguntza mota hori eskaintzen dien lehen Zerga Administrazioa izango gara.

Azpimarratu behar da iruzurraren aurkako planen arrakastaren beste gakoetako bat aurreko urteetan jorratutako lan ildoekin jarraitzea dela. Kasu askotan hartzen diren neurriak irismen handikoak izaten dira, eta beharrezkoa da horien ondorioak ekitaldi batean baino gehiagotan luzatzea benetan eraginkorrak izango badira.

2024an, langileen belaunaldi erreleboan murgilduta jarraituko dugu, eta, aurten mugarri gisa, egonkortze prozesua amaituko da; horrek eragina izango du Plan honetan jasotako helburuen aurreikuspenean.

Jarraian zehazten dira, gorago aipatutako hiru ataletako bakoitzean, 2024. urterako proposatzen diren jarduketa lerroak, bai EAEko Iruzurraren aurkako Plan Bateratuan sartuta daudenak eta bai Gipuzkoako Foru Ogasunak berariaz garatuko dituenak.

## A. INFORMAZIOA LORTZEKO JARDUKETAK

2024. urtean, nazioarteko akordioen ondorioz jasotzen den nazioarteko informazioa aztertuko da, eta auditoretza informatikoko jarduketak egingo dira, beharrezkoa izanik, horretarako, zergadunen bulego edo lokaletara bertaratzea informazioa bil-

tegración de todas las nuevas autoliquidaciones se acometan mejoras para un mejor servicio atendiendo a una mejor accesibilidad y facilidad tanto para elaborar las mismas con los datos que constan en Hacienda, como para una presentación fácil y simple, adecuada a los diferentes colectivos.

Se siguen mejorando las funcionalidades de la plataforma Zergabidea definidas especialmente para los profesionales de la gestión tributaria, facilitándoles la gestión de sus representados.

Continuando con los pasos dados anteriormente, se avanzará en la atención multicanal, poniendo a disposición de los contribuyentes que así lo deseen las herramientas digitales que les faculten de una manera simple para cumplimentar sus obligaciones fiscales. Y, por otro lado, aprovechando dichas tecnologías, plataforma Zergabidea, para la atención al contribuyente mediante la puesta a disposición del personal de atención tributaria, la posibilidad de realizar autoliquidaciones de los contribuyentes de una manera presencial, autoliquidaciones asistidas. Continuándose en el caso de la campaña de renta dando este servicio, mecanizada, por medio de técnicos de Hacienda en las diferentes oficinas habilitadas al efecto. Además de incluir en las autoliquidaciones que así lo demanden la posibilidad de pago en esta autoliquidación asistida por parte de funcionarios habilitados al efecto.

Por otra parte, el proyecto TicketBAI, es el primer paso de control integral de la tributación de las personas o entidades que desarrollan actividades económicas y que desde el 1 de junio de 2023 mandan toda la información de las facturas que emiten.

Desde la puesta en marcha del proyecto, nos hemos centrado en la asistencia, tanto a los desarrolladores informáticos como a los contribuyentes con el objetivo de minimizar los errores y rechazos que se producen por no cumplir con las validaciones del sistema. Se están realizando diferentes acciones proactivas para asegurar la calidad de la información que recibimos, crucial para poner en marcha las siguientes fases del proyecto, y para ofrecer diferentes herramientas informáticas que permitan a los contribuyentes la explotación de forma sencilla y segura de la información que nos han remitido.

2024 será el año en el que los contribuyentes puedan ver las ventajas de informatizar su proceso de facturación. Además de poder obtener listados que les ayuden en el control de sus ventas, van a tener a su disposición una calculadora del modelo 300 trimestral del IVA, en lo que se refiere al IVA repercutido.

Seremos la primera Administración tributaria que ofrece este tipo de asistencia a más de 42.000 negocios que operan con TicketBAI en nuestro territorio.

Hay que destacar que otra de las claves del éxito en los planes de lucha contra el fraude es el mantenimiento de las líneas de trabajo de años anteriores. Las medidas que se adoptan, en muchos casos, son medidas de gran alcance y es necesario que sus efectos se prorroguen durante más de un ejercicio para que realmente sean eficaces.

En 2024 seguiremos inmersos en el relevo generacional del personal, que, como hito en este año, tendrá el fin del proceso de estabilización, lo que afectará a la previsión de los objetivos contenidos en este Plan.

A continuación, se detallan en cada uno de los tres apartados mencionados, las líneas de actuación propuestas para el 2024, que incluyen tanto las que van a ser objeto del Plan conjunto de lucha contra el fraude del País Vasco como las que se desarrollarán específicamente por parte de la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

## A. ACTUACIONES DE OBTENCIÓN DE INFORMACIÓN

Durante el año 2024 se analizará la información internacional que se sigue recibiendo derivada de los acuerdos internacionales, y se realizarán actuaciones de auditoria informática que implican la personación en las oficinas o locales de los contribuyentes,



EK\CV GAO-I-2024-02508

du eta instalazioak erregistratzeko. Era berean, ikuskapen jarduketen barruan, zergadunek beren zerga obligazioak borondatez betetzea ere sustatuko da.

Informazioa beste zerga administrazio batzuekin trukatzeko prozesuak garatzen jarraituko da.

1. Zerga ondorioak dituen informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak ustiatzea, gure zergadunek atzerrian dituzten ondasun eta eskubideak detektatzeko.

2024an, informazioa lortzeko hautapen jarduerak egiten jarraituko dugu, aipatutako informazio trukeetatik lortutako informazioaren arabera iruzur fiskala egin izanaren zantzuak dituzten pertsona eta entitate zergadunei dagokienez. Horren ondoren, erregularizazio eta kobrantza jarduketak egingo dira, hala badagokio. Zehazki:

a) Lehentasuna emango zaio kontu edo aktibo finantzarioei buruzko informazio truke hauetatik jasotako informazioa analizatzeari:

— FATCA trukea. Truke hau Espainiako Erresumak eta Amerikako Estatu Batuek 2013ko maiatzaren 14an Madrilen sinatutako hitzarmenaren ondorio da, eta nazioarteko betetze fiskala hobetzea eta Foreign Account Tax Compliance Act (atzerriko kontuen zerga obligazioak betetzeko Legea) ezartzea du helburu.

— CRS-DAC 2 trukeak, honako hauek direla medio ezarriak: batetik, Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztuna, kontu finantzarioei buruzko informazioaren truke automatikoari buruzkoa, Berlinen 2014ko urriaren 29an formalizatua; eta, bestetik, Europar Batasunaren esparruan, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaraua, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

Jasotako datua benetakoa den edo aitortzeko obligazioa bete ote den egiaztatu behar denean, aurretiazko egiaztapen jarduketak egingo dira, egiaztapen eta ikerketa jarduketetan zer zergadun sartu behar diren hautatzeko. Prozedurak irekitzen diren guztietan, une oro hartuko da kontuan haien erabilera mugatu dezakeen araudia.

b) Behar diren jarduketak aztertu eta gauzatuko dira 2011/16/EB Zuzentarauan (DAC 1) aurreikusitakoaren arabera jasotzen den informazioarekin lotuta: lan etekinak, administratzaile eta kontseilarien ordainsariak, pentsioak, ondasun higiezinen gaineko jabetza, eta etekin higiezinak. Gainera, zergadunei abisuak helaraziko zaizkie datu horiengatik errenta horiek zergapetuak ikusi ditzaketenean.

2. Nazioarteko fiskalitatearen esparruan diharduten zergapekoak aztertzea.

a) Mugaldeko tax ruling-ari eta transferentzia prezioen inguruko aurretiazko akordioei buruzko informazioa alderatuko da, haietan foru lurraldean helbidea duten pertsona edo entitateak sartuta daudenean (DAC 3 eta BEPSeko 5. ekintza).

b) Errolda betebeharrak eta BEZa helmugan aitortzeko obligazioak zuzen betetzen direla kontrolatzea. Merkataritza elektronikoaren hazkunde esponentzialak, mugaz gaindiko salmentek gora egitea ekarri zuenak, galerak utzi zituen agerian BEZaren bilketan, eta batik bat, azken kontsumitzaileei egindako ondasun entregetan eta zerbirzu prestaizoetan. Aurrekoa ikusita, Europako Batzordeak diseinu berria eman zion zergaren sistemari hiru helburu jarrita: iruzur horri aurre egitea, hornitzaileen arteko lehia babestea eta operadoreei administrazio kargak eta BEZaren kudeaketako kostuak murriztea. Horrela, eredu berri horretan ezaugarria da zerga aplikatzen dela merkantziaren helmugako tokian edo hartzailearen establezimenduan, eta merkataritza elektronikoaren zerga kudeaketa, leihatila bakarreko araubide berezien bidez egiten dela. Horren ondorioa da gaur egun gero eta informazio gehiago daukagula mugaz gaindiko

para la captación de la información y el registro de las instalaciones. Asimismo, dentro de las actuaciones de Inspección también se potenciará el cumplimiento voluntario de los contribuyentes a la hora de cumplir con sus obligaciones fiscales.

Se continuarán desarrollando los procesos de intercambio de información con las administraciones tributarias.

1. Explotación de los acuerdos internacionales de intercambio de información con trascendencia tributaria para la detección de los bienes y derechos de nuestros contribuyentes en el extranjero.

En el año 2024, seguiremos realizando actuaciones selectivas de obtención de información respecto de aquellas personas y entidades contribuyentes que presenten indicios de comisión de fraude fiscal en función de la información obtenida a partir de los citados intercambios de información. Seguidamente se realizarán, cuando proceda, las correspondientes actuaciones de regularización y cobro. En particular:

a) Se priorizará el análisis de la información recibida del intercambio de información sobre cuentas o activos financieros por:

— El intercambio FATCA, derivado del Acuerdo entre el Reino de España y los Estados Unidos de América para la mejora del cumplimiento fiscal internacional y la implementación de la Foreign Account Tax Compliance Act (Ley de cumplimiento tributario de cuentas extranjeras), formalizado en Madrid el 14 de mayo de 2013.

— Los intercambios CRS-DAC 2, establecidos por el Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes sobre intercambio automático de información de cuentas financieras, formalizado en Berlín el 29 de octubre de 2014, y en el ámbito de la Unión Europea, la Directiva 2014/107/UE del Consejo, de 9 de diciembre de 2014, que modifica la Directiva 2011/16/UE.

En los casos en los que deba contrastarse la veracidad del dato recibido o la existencia de incumplimiento en la obligación de declarar, se realizarán actuaciones previas de verificación que permitan seleccionar los contribuyentes que deban incluirse en actuaciones de comprobación e investigación. En todo momento se tendrá en cuenta, en los procedimientos que se lleven a cabo, la normativa que pueda limitar su utilización.

b) Se analizarán y se realizarán las actuaciones de verificación necesarias, sobre la información recibida prevista en el DAC 1-Directiva 2011/16/UE: rendimientos de trabajo, remuneraciones de administradores y consejeros, pensiones, propiedad de bienes inmuebles y rendimientos inmobiliarios. Además, se incluirán avisos a los contribuyentes que por sus datos sean candidatos a tener que tributar por estas rentas.

2. Análisis de los obligados tributarios que operan en el ámbito de la fiscalidad internacional.

a) Se contrastará la información sobre tax rulings y APAs (acuerdos previos sobre precios de transferencia) transfronterizos en los que estén involucradas personas o entidades con domicilio en territorio foral (DAC 3 y acción 5 BEPS).

b) Control del cumplimiento correcto de las obligaciones de censo y declaración del IVA en destino. El crecimiento exponencial del comercio electrónico, con el consiguiente aumento de las ventas transfronterizas, puso de manifiesto las pérdidas de recaudación que se derivaban en el IVA, principalmente, en aquellas entregas de bienes y prestaciones de servicios a consumidores finales. A la vista de lo anterior, la Comisión Europea procedió a establecer un nuevo diseño del sistema del impuesto con el objetivo de atajar ese fraude, proteger la competencia entre proveedores y reducir las cargas administrativas y los costes de gestión del IVA para los operadores. Así, ese nuevo modelo se caracterizó por la tributación en el lugar de llegada de la mercancía o de establecimiento del destinatario y por la gestión tributaria del comercio electrónico por medio de los regímenes especiales de ventanilla única. Derivado de lo anterior, la información con la


EK\CV GAO-I-2024-02508

transakzio horiei buruz, eta horrek erraztu egiten du bai Europar Batasuneko estatu kideen arteko administrazio lankidetza eta bai estatu horietako bakoitzean zerga iruzurraren aurka egitea.

c) DAC7tik eratorritako informazio betebeharra betetzen dela kontrolatzea (179-379 ereduak). 2024an, estatu kide guztiek informazio gehiago izango dute portaera ez-zilegiak detektatzeko, eta hori posible izango da DAC7an arautu den informazio betebehar berriari esker. Izan ere, betebehar horrek merkataritza elektronikoaren bideratzaile diren interfaze digitalen titularrei eragiten die, eta berekin dakar titular horiek kolaboratzaile bihurtzea bai zerga-bilketan bertan, bai kudeaketan eta bai haren kontrolean. Zehazki, ordainketa zerbitzuen hornitzaileek betetzen duten funtsezko zeregina aprobetxatuz, mugaz gaindiko ordainketak deiturikoei buruzko informazioa lortuko da.

d) Era berean, plataforma digitaletako operadore batzuek informazio betebehar berriak dituzte eragiketa egoki deitu direnekin lotuta: ondasun higiezinen errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena, zerbitzu pertsonalak, ondasun salmentak eta edozein motatako garraiobideen errentamenduak. Aurten ezarri eta egiaztatuko da 238 eredu berria aurkezteko betebeharra.

e) Arlo honetan, eragiketa lotuen tratamendu fiskalak garrantzia berezia hartzen du. 2016ko urtarrilaren 27an Espainiako Erresumak Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztuna sinatu zuen, beste 30 estaturekin batera, ELGAren BEPS proiektuan jasotako «herrialdez herrialdeko txostena» trukatzeko. Tresna horri esker, merkataritza talde transnazionalen transferentzia prezioko politikan dauden arriskuak ebaluatu daitezke. Era berean, Batzordearen 2016/881 (EB) Zuzentarauak, 2016ko maiatzaren 25ekoak, 2011/16 (EB) Zuzentaraua aldatu zuen. Hala, talde multinazional handiek aurkeztu beharreko «herrialdez herrialdeko txostenetara» ere hedatu da informazio truke automatikoa.

Aurreko urteetan bezala, 2024an ere jarduketak egingo dira informazio betebehar horiek Gipuzkoako zergapekoek betetzen dituztela ziurtatzeko eta nazioarteko informazio truke automatikoen ondorioz lortzen den informazioa ustiatzeko.

f) Informazioa lortzeko jarduketak egingo dira, artifiziotsu edo abusuzkoak izan litezkeen gastu finantzarioengatik kenkari bat aplikatzen ari diren sozietate taldeak detektatzeko.

g) Aztergai hartuko dira zergadunek pertsona edo entitate egoiliarrekin lotuta egiten dituzten eragiketak eta jurisdikzio ezkooperatibotzat hartzen diren herrialde eta lurraldeekin lotutakoak. Jarduera horiek garatzeko, nazioarteko informazio trukeen bidez eskuratutako informazioa erabiliko da.

h) Azkenik, egiaztatuko da pertsona eta entitate ez-egoiliarrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten dituzten jardueren tributazioa.

Jarduketa horien xedea izango da EAEko zergadunek lurralde espainiarreko ez-egoiliarrei ordaindutako errenten tributazioaren erregulartasuna egiaztatzea, establezimendu iraunkor bidez jardun edo hura gabe jardun. Kanonen, royaltyen eta dibidenduen ordainketei begiratuko zaie bereziki.

Era berean, informazioa lortzeko jarduketak egingo dira, atzerriko enpresek Gipuzkoan establezimendu iraunkor aitortugabeak ote dituzten antzemateko. Indarra jarriko da establezimendu iraunkorren identifikazioan, BEZaren ondorioetarako.

3. Informazioa beste tributu administrazio batzuekin trukatzeko prozesuak sendotu, garatu eta areagotzea, eta zerga on-

que se cuenta en relación con esas transacciones transfronterizas es cada vez mayor y favorece la cooperación administrativa entre Estados miembros de la Unión Europea y la lucha contra el fraude fiscal en cada uno de esos Estados.

c) Control del cumplimiento de la obligación de información derivada de la DAC7 (modelos 179-379). En 2024 se amplía la información con la que contaremos todos los Estados miembros para reforzar la detección de comportamientos ilícitos, gracias a la implantación de la nueva obligación de información regulada por la DAC7 que involucra a los titulares de las interfaces digitales que facilitan el comercio electrónico, que se convierten en colaboradores de la propia recaudación, gestión y control del impuesto. En concreto, aprovechando el papel clave que desempeñan los proveedores de servicios de pago, se obtendrá información sobre los denominados pagos transfronterizos.

d) Así mismo, ciertos operadores de plataformas digitales tienen nuevas obligaciones de información relacionadas con las denominadas operaciones pertinentes de arrendamiento o cesión temporal de uso de bienes inmuebles, servicios personales, venta de bienes y arrendamiento de cualquier medio de transporte. Este año se implementará y verificará la obligación de presentación del nuevo modelo 238.

e) En este ámbito, el tratamiento fiscal de las operaciones vinculadas constituye un elemento trascendental. El Reino de España firmó con fecha 27 de enero de 2016, junto a otros treinta estados, el Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes para el intercambio del «informe país por país», incluido en el proyecto BEPS de la OCDE, el cual constituye un instrumento que permite evaluar los riesgos en la política de precios de transferencia de los grupos mercantiles transnacionales. A su vez, la Directiva (UE) 2016/881, normalmente denominada DAC 4, del Consejo de 25 de mayo de 2016, ha modificado la Directiva 2011/16 UE, extendiendo el intercambio automático de información a los «informes país por país» que tienen que presentar los grandes grupos multinacionales.

Como en años anteriores, en el año 2024 se realizarán actuaciones dirigidas a asegurar el cumplimiento de estas obligaciones informativas por las personas y entidades obligadas tributarias forales y a la explotación de la información que se obtenga de los mismos en virtud de los citados acuerdos internacionales de intercambio automático de información.

f) Se realizarán actuaciones de obtención de información con el objetivo de detectar grupos de sociedades multinacionales que estén aplicando una deducción de gastos financieros que pudieran ser artificiosos o abusivos.

g) Se analizarán los contribuyentes y las operaciones relacionadas con personas o entidades residentes o vinculadas con países y territorios que tengan la consideración de jurisdicciones no cooperativas. Para el desarrollo de estas actuaciones se utilizará la información recibida a través de los intercambios internacionales de información.

h) Por último, se verificará la tributación de las personas y entidades no residentes por las actividades que desarrollen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Estas actuaciones se centrarán en la comprobación de la regularidad de la tributación de rentas satisfechas por personas contribuyentes vascos a no residentes en territorio español, tanto si se realizan mediante establecimiento permanente como sin la existencia del mismo. En particular, se incidirá en los pagos de cánones, royalties y dividendos.

Asimismo, se realizarán actuaciones de obtención de información orientadas a detectar la existencia de establecimientos permanentes en Gipuzkoa de empresas extranjeras no declarados como tales. Se intensificará la identificación de establecimientos permanentes a efectos de IVA.

3. Consolidar, desarrollar e intensificar los procesos de intercambio de información con las Administraciones tributarias,

EK\CV GAO-I-2024-02508

dorioak dituen informazioa zergen arlokoak ez diren beste administrazio, organismo eta entitate publiko batzuekin trukatzeko prozesuak zabaldu eta hobetzea.

Zehazki:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko harremanen esparruan, aurreikusita dago 2024. urtean ere bildu eta ustiatzea 2016an informazioa trukatzeko sinatutako esparru hitzarmenen babesean adostutako aldizkako informazioa.

b) Zerga informazioa AEATrekin trukatzeko hitzarmenari dagokionez, adosten diren informazio fitxategi berrien trukearekin hasiko da.

4. Informazioa lortzeko beste formula batzuk indartu eta eguneratzea, aldizkakoak zein arau bidez erregulatuak, hala nola izaera orokorrez ezarritako eredu informatiboen bitartez eratutakoak, Zergen Foru Arau Orokorrean ezarrita dagoen informatzeko betebehar orokorra betetze aldera.

Horretarako, eredu batzuk onetsi dira diru birtual edo kriptodiruari buruz informatzeko, 2024. urtean aurkeztu beharrekoak. Zehazki, diru hori edukitzea eta erabiltzea ahalbidetzen duten gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsona edo entitate gipuzkoarrei dagokienez informatu beharko da haien bidez.

5. Foru Ogasunak tributuen ikuspegitik garrantzia duten informazioen bilketak egingo ditu, haien berri emateko obligazioa eredu informatiboen bidez izaera orokorrez ezarrita ez dagoenean.

Mota honetako jarduketen xedea da beren jarduera arrisku fiskal handiko sektore ekonomikoetan garatzen duten zergapekoei buruzko informazioa –tributuen ikuspegitik garrantzitsua dena– handitu eta hobetzea.

Era berean, errekerimenduak edo egiaztapen jarduketak egingo dira, jasotako datua erregularizazio jarduketak hasi aurretik benetakoa den egiaztatu behar denean.

Zehazki, jarduketa hauek egingo dira, besteak beste:

a) Ekonomia Itunean, zerga desberdinei dagokienez, eragiketak lokalizatzeko konexio puntuak zergadunek zuzen aplikatzen dituztela egiaztatzeko jarduketak, Arbitraje Batzordearen azken ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan finkatutako interpretazio irizpideei jarraituz.

b) Informazio errekerimendu espezifikoak egingo dira ezkengarri gisa sailkatutako gastuak, jarduera ekonomikoekin loturarik ez duten kontsumo pribatuak, eta aitortu gabe utzitako diru sarrerak detektatzeko.

c) Errekerimendu espezifikoak, balio erantsiaren gaineko zergaren entitate taldeen araubide bereziari atxikitako zergapekoen informazio analitikoko sistemak egiaztatzeko.

d) Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarrian egindako doikuntzak aztertuko dira, tamaina handikoak direnean, iruzurrezko jokabideak detektatzeko.

e) Zergapekoek egindako enpresa berregituratzeak aztertuko dira, 20R ereduaren bidez lortutako informaziotik abiatuta, saiheste fiskala bilatzen duten egitura amarrutsuak detektatzeko. Era berean, eskurapen balioak egiaztatuko dira, ondorio fiskaletarako.

f) Entitateak ondare sozietate eta enpresa mikro, txiki edo ertain gisa zuzen kalifikatuta daudela egiaztatzea.

g) Higiezinen sektorean egindako eragiketak ikertuko dira, eta, bereziki, eraikinak birgaitzeko lanen tributazio egokia, balio

así como ampliar y mejorar los procesos de intercambio de información con trascendencia tributaria con otras Administraciones, organismos y entidades distintas de las tributarias.

En particular:

a) En el ámbito de la relación con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, está previsto que durante el año 2024 se siga recabando y explotando la información de carácter periódico acordada con anterioridad al amparo de los convenios marco para el intercambio de información suscritos en 2016.

b) Con respecto al Convenio de intercambio de información con fines tributarios con la AEAT se pondrá en marcha el intercambio de los nuevos ficheros de información que se vayan acordado.

4. Reforzar y actualizar otras fórmulas de obtención de información, periódicas y reguladas normativamente, como son las que se establecen a través de los modelos informativos establecidos con carácter general, en cumplimiento del deber general de informar establecido en la Norma Foral General Tributaria.

Para ello, se han aprobado diversos modelos para la información sobre monedas virtuales o criptomonedas respecto de las personas o entidades guipuzcoanas que proponen servicios en nombre de terceras personas para salvaguardar claves criptográficas privadas que posibilitan la tenencia y utilización de tales monedas. Con obligación de presentar en el ejercicio 2024.

5. La Hacienda Foral realizará captaciones de información con trascendencia tributaria, cuya obligación de aportación no está establecida con carácter general a través de los modelos informativos.

Este tipo de actuaciones tienen por objeto el incremento y mejora de la información con trascendencia tributaria relativa a los obligados tributarios que desarrollan su actividad en sectores económicos de elevado riesgo fiscal.

Igualmente, se realizarán requerimientos o actuaciones de verificación cuando deba contrastarse la veracidad del dato recibido como paso previo al inicio de actuaciones de regularización.

En concreto, se efectuarán, entre otras, las siguientes actuaciones:

a) Actuaciones dirigidas a comprobar la correcta aplicación por las y los contribuyentes de los puntos de conexión de localización de las operaciones que, en relación con los diferentes impuestos, se establecen en el Concierto Económico, de acuerdo con los criterios interpretativos fijados en las recientes resoluciones de la Junta Arbitral y sentencias del Tribunal Supremo,

b) Requerimientos específicos de información tendentes a la detección de gastos calificados fiscalmente como no deducibles y de consumos privados no relacionados con actividades económicas, así como posibles ingresos no declarados.

c) Requerimientos específicos en orden a la comprobación de los sistemas de información analítica de los obligados tributarios acogidos al régimen especial del grupo de entidades en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

d) Análisis de los ajustes realizados en la base imponible del Impuesto sobre Sociedades por importes notorios, a efectos de detectar la existencia de conductas fraudulentas.

e) Análisis de las operaciones de reestructuración empresarial realizadas por los obligados tributarios, fruto de la información obtenida a través del modelo 20R, con el objeto de detectar estructuras artificiosas que persigan la elusión fiscal. Asimismo, se verificarán los valores de adquisición a efectos fiscales.

f) Verificación de la correcta calificación de entidades como sociedades patrimoniales y como micro, pequeña o mediana empresa.

g) Investigación de las operaciones realizadas en el sector inmobiliario y, en particular, de la correcta tributación de las

erantsiaren gaineko zergan behar bezala zergapetzeari dagokionez.

h) Hirugarrengoei berariazko informazio errekerimenduak egingo zaizkie, aitortu gabeko fakturak detektatzeko.

i) Informazio trukearen bidez jasotako informazioa kudeatzea (AEATrekin eta foru ogasunekin egindako hitzarmenak).

j) BIHari buruzko informazio egiaztatua kontrolatzea. Alarma sistema bat ezarriko da bidalitako datuetan inkongruentziak daudela antzemateko.

k) Errekerimenduak egingo dira oinordetza eta dohaintzei buruzko eskriturei dagokienez, administrazio honetan aurkeztu ez direnean.

l) Errekerimenduak egingo dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarekin lotutako eskriturei dagokienez, administrazio honetan aurkeztu ez direnean.

m) Eraikinen helbide zuzenak ezagutzea eta Katastroan eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan sartzea, udalek emandako informazioaren bidez.

n) Onartuta dagoen hirigintza antolaketa eskuratzea eta ondasun higiezinen balorazio katastralean aplikatzea.

o) Jabetza Erregistroari finken ohar soilak eskatzea, katastroa eguneratzeko.

p) Zergadunei dokumentazioa eskatzea, obra berriei alta emateko.

q) Zergadunei dokumentazioa eskatzea, jarduera ekonomikoei alta emateko.

r) Zerga-bilketako Zuzendariordetzaren esparruan, eta Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetza Nagusiarekin koordinatuta, jarduketekin jarraituko da informazio iturri berriak zerga-bilketaren kudeaketan pixkanaka sartu eta automatizatzeko: BIHa, TicketBAI, Big Data tresnen erabileran sakonduz.

s) Informazio errekerimendu espezifikoak egingo dira balio erantsi handiko zerbitzuak emateko jarduerei dagokienez, eta, bereziki, jarduera horietan, azken kontsumitzaileei zuzenduta egoteagatik, Zerga Administrazioak beste bide batzuetatik behar adina informazio ez duenean eta iruzurrezko praktiken zantzuak dituenean.

6. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek aitortutako etekinen kontrol integrala. Alde horretatik, Ikuskaritzako funtzionario eta zerga agenteen aurrez aurreko jarduketak planifikatuko dira.

7. TicketBAI software bermatzailearen erregistroetan erregistratutako softwareei buruzko informazioa lortzeko jarduketak, erregistro horretatik kanpo uzteko prozedura bat garatu aurretik, halakorik bada, araudiak software horiek TicketBAI software bermatzailetzat hartzeko exijitzen dituen baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Orobat, software horiek erabiltzen dituzten enpresaburu eta profesionalek TicketBAI fakturak behar bezala jaulki eta entregatzen dituztela egiaztatzeko jarduketak.

8. Negozio eredu berrien analisia. Aurreko ekitaldian hasitako ildoek jarraituko dute 2024an, eta jarduera ekonomikoen negozio eredu berriak aztertu eta ikertuko dira. Ekonomia digitala aldaketak eragiten ari da gizartean eta jarduera ekonomikoetan. Administrazioak haietan sortzen diren negozio berriak aztertu, ulertu eta haien gainean jardun behar du, haien betebehar fiskalen bidez modu zuzen eta ekitatibo batean ekarpena egin dezaten.

Nabarmentzekoa da ELGA nahiz Europar Batasuna hainbat ekimen gauzatzen ari direla, esparru digitalean aritzen diren pertsonek eta entitateek lurralde bakoitzean zergak behar bezala ordaintzen dituztela ziurtatzeko asmoz.

obras de rehabilitación de edificaciones, en relación con el correcto sometimiento a gravamen por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

h) Requerimientos específicos de información a terceros tendentes a descubrir facturas no declaradas.

i) Gestión de la información recibida por el intercambio de información (Convenio AEAT y HHFF).

j) Control de la información contrastada relativa al SII. Se instaurará un sistema de alarmas que implique una incongruencia de los datos remitidos.

k) Requerimientos de escrituras concernientes a sucesiones o donaciones que no consten presentadas en esta administración.

l) Requerimientos de escrituras concernientes a ITP y AJD que no consten presentadas en esta administración.

m) Obtención e incorporación al catastro y a la matrícula del IAE de las direcciones correctas de los inmuebles a través de la información suministrada por los ayuntamientos.

n) Obtención del planeamiento urbanístico aprobado y su aplicación en la valoración catastral de los bienes inmuebles.

o) Peticiones de notas simples de fincas registrales al Registro de la Propiedad para la actualización del catastro.

p) Requerimientos a contribuyentes de documentación para el alta de obras nuevas.

q) Requerimientos a contribuyentes de documentación para el alta de actividades económicas.

r) En el ámbito de la Subdirección de Recaudación, en coordinación con la Subdirección General de Estrategia Tecnológica, se continuarán las actuaciones tendentes a incorporar y automatizar de forma gradual en la gestión recaudatoria las nuevas fuentes de información: SII, TicketBAI, profundizando en la utilización de herramientas Big Data.

s) Se realizarán requerimientos específicos de información en relación con actividades de prestaciones de servicios de alto valor añadido, y en particular, en aquéllas que, por estar dirigidas al colectivo de consumidores finales, la Administración tributaria no disponga de información suficiente por otros medios y haya indicios de la existencia de prácticas fraudulentas.

6. Control integral de los rendimientos declarados por los obligados tributarios que realizan actividades económicas. En este sentido, se planificarán actuaciones presenciales de los funcionarios y agentes tributarios de la Inspección.

7. Actuaciones de obtención de información respecto de los softwares registrados en los registros de software garante TicketBAI, previas en su caso al desarrollo de un procedimiento de exclusión de este registro, con la finalidad de verificar el cumplimiento por los citados softwares de los requisitos exigidos por la normativa para tener la consideración de software garante TicketBAI.

Asimismo, actuaciones de verificación de la correcta expedición y entrega de facturas TicketBAI por las personas empresarias y profesionales que sean usuarias de estos softwares.

8. Análisis de nuevos modelos de negocio. En 2024, continuarán las líneas iniciadas en el ejercicio precedente y se analizarán e investigarán nuevos modelos de negocio de actividad económica. La economía digital está impulsando cambios en la sociedad y en las actividades económicas y desde la Administración debemos analizar, entender y actuar sobre los nuevos negocios que se generen para que contribuyan con sus obligaciones fiscales de una manera justa y equitativa.

Es destacable que, tanto la OCDE como la Unión Europea estén llevando iniciativas para asegurar la correcta tributación en cada territorio de las personas y entidades que operan en el marco digital.

EK\CV GAO-I-2024-02508

Jarraian, arlo nagusietako batzuk aipatuko dira:

a) Merkataritza elektronikoari lotutako plataforma digitalak erabiliz ondasun eta zerbitzuak hornitzeko jarduera logistikoak, haien esparruan egiten diren eragiketak foru lurraldean lokalizatu daitezkeen neurrian, igorpenen triangulazioa, esate baterako. Merkatu hori aztertu, haren arriskuak definitu eta haren jarduera kontrolatuko da.

b) Moneta birtualen operatiba aztertu eta ikertuko da.

Informazioa lortzeko jarduketa horiek guztiak egitean, Foru Ogasunean zergak aplikatzeko eskumenak dituzten organoak oreka egokia lortzen ahaleginduko dira zerga iruzurraren aurka borrokaren efikaziaren eta izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian jasotako datuen proportzionaltasun eta kalitate printzipioarekiko errespetuaren artean.

B. PREBENTZIO JARDUKETAK

Sailkapen talde honen barruan sartuta daude bai zerga obligazioak borondatez betetzea sustatzen duten kontzientziazio eta gizarte lankidetza estrategiak eta bai iruzurra egin aurretik zergapekoek hura egitea hauteman eta saihesteko kontrol jarduketak.

2024an jarduketa hauek egingo dira bereziki:

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituztenen fakturazioari buruzko informazioa lortzea.

Foru Ogasunaren helburuetako bat aurrerapen teknologikoak erabiltzea da, bai herritarrei zerga obligazioak betetzea errazteko eta bai haiek betetzen ez dituzten zergadunen iruzurra pertsegitzeko. Helburu horrekin, gaur egun hiru proiektu garatzen ari dira, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen edo entitateen fakturazioa epe ertainean osorik jasotzera bideratuak. Proiektu horietan nahitaezkoa da aztertu eta planifikatzea zer aurrekontu zuzkidura beharko diren informazioa jaso eta aztertzea ahalbidetuko duten inbertsioak gauzatzeko:

a) BEZaren berehalako informazio hornidura (BIHa).

2018ko ekitaldian indarrean jarri zen Berehalako Informazio Hornidura (BIHa). Sistema horren arabera, hileko aitorpenak aurkezten dituzten enpresek Gipuzkoako Foru Ogasunaren egoitza elektronikotik eraman behar dituzte BEZeko erregistro liburuak. Horretarako, entitate horiek behartuta daude beraiek egin eta jasotako fakturen datuak oso epe laburrean bidaltzera.

Informazioa berehala emateko sistema horrek aldaketa bat ekarri du zergak kudeatzeko eran, eta zuzeneko eragina izaten ari da bai kudeaketan, bai ikuskapenean eta bai zerga-bilketan. Horren ondorioz, 2018. urteaz geroztik hainbat egokitzapen egiten ari dira barruko zein kanpoko aplikazioetan, zergadunei begira.

Zergadunek erabil dezaketen aplikazioari dagokionez (web zerbitzuak), Araba, Bizkai eta Nafarroako Foru Ogasunekin batera jardun da, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin ere elkarlanean aritu da, 2017ko uztailean AEATk abian jarritakoa bezalako sistema bat ezartzeko.

Barrura begira, 2018an jarduketak hasi ziren datu berri horiekin lan egiteko, 2019an ere jarraipena izan zutenak: datuak Foru Ogasunaren sistemetara bihurtzea, BIHa ezarri ondoren ukitutako zeharkako zergen prozesuak egokitzea, eta informazio hornidura hori ziurtagirien, errekerimenduen eta abarren sisteman sartzea. Gainera, aurrerago azalduko den bezala, datuen bolumen handiak iruzurraren aurkako borrokan duen garrantzia dela eta, administrazio honek arriskua aztertzeko proiektu bat taxutu du informazio horrekin, BIG dataren azpiegituraren bidez.

Se enumeran a continuación algunas de las principales áreas:

a) Las actividades logísticas de provisión de bienes y servicios mediante el uso de plataformas digitales ligadas al comercio electrónico, en la medida en que las operaciones que se realizan en su ámbito puedan localizarse en territorio foral, tales como la triangulación de los envíos. Análisis de este mercado, definición de sus riesgos y control de su actividad.

b) Análisis e investigación sobre la operativa de las monedas virtuales.

En el desarrollo de todas estas actuaciones de obtención de información, los órganos con competencias de aplicación de los tributos de la Hacienda Foral procurarán alcanzar el adecuado equilibrio entre la eficacia de su actuación para la lucha contra el fraude fiscal y el respeto al principio de proporcionalidad y de calidad de los datos establecido en la normativa sobre protección de datos de carácter personal.

B. ACTUACIONES PREVENTIVAS

Dentro de esta categoría se incluyen tanto estrategias de concienciación y colaboración social, que fomenten el cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias, como aquellas actuaciones de control dirigidas a detectar y evitar la realización de conductas fraudulentas de los obligados tributarios antes de su comisión.

Durante el año 2024 se incidirá especialmente en el desarrollo de las siguientes actuaciones:

1. Obtención de la información sobre la facturación de los contribuyentes que ejercen actividades económicas.

Un objetivo de la Hacienda Foral es el empleo de los avances tecnológicos tanto para facilitar a la ciudadanía el cumplimiento de sus obligaciones como para perseguir el fraude de los contribuyentes incumplidores. En ese sentido se están desarrollando tres proyectos dirigidos en el medio plazo a contener de forma íntegra la facturación de las personas físicas o entidades que desarrollan actividades económicas. En estos proyectos se requiere analizar y planificar las dotaciones presupuestarias necesarias para abordar las inversiones a realizar para recibir y analizar la información:

a) Sistema de Suministro Inmediato de Información (SII).

En el ejercicio 2018 entró en vigor el Suministro inmediato de información (SII), por el que las empresas que presentan mensualmente sus declaraciones quedaban obligadas a llevar sus libros registros de IVA en la sede electrónica de la Hacienda Foral de Gipuzkoa. Para ello, dichas entidades están obligadas a enviar los datos de sus facturas emitidas y recibidas en un plazo muy corto de tiempo.

Este sistema de suministro inmediato de información está suponiendo un cambio en la gestión de todos los impuestos e incidiendo directamente en la gestión, la inspección y en la recaudación, por lo que desde el ejercicio 2018 se están realizando diversas adaptaciones en las aplicaciones tanto a nivel interno como a nivel externo, de cara a los contribuyentes.

En cuanto a la aplicación de uso por los contribuyentes, servicios web, se ha trabajado de manera compartida con las Haciendas Forales de Álava, Bizkaia y Navarra y también ha requerido una colaboración con la Agencia Estatal de Administración Tributaria para poder establecer un sistema igual al ya instaurado por la AEAT en julio de 2017.

A nivel interno, en el 2018 comenzaron las actuaciones para poder trabajar con estos nuevos datos, actuaciones que continuaron en 2019: Conversión de datos a los sistemas de la Hacienda Foral, adaptación de los procesos de Impuestos Indirectos que se ven afectados tras la implantación del SII, incorporación de este suministro a certificados, requerimientos. Además, como se indicará posteriormente, el gran volumen de datos y su importancia en la lucha contra el fraude, ha llevado a esta administración a configurar un proyecto de análisis del riesgo con esta información, mediante la tecnología BIG data.

EK\CV GAO-I-2024-02508

Barne kudeaketan egin beharreko aldaketak egin ondoren, aurreko urteetan aztertu da zer beharkizun tekniko diren beharrezkoak BIHak barne eta kanpo mailan dakartzan funtzionalitate guztiak abian jartzeko. Aurten, beraz, balioztapen eta zehaztapen teknikoak hobetzen jarraituko dugu, baita zenbait funtzionalitate ere, hala nola ekitaldi honetan epeen kalkulagailua inplementatzea.

Bestalde, informazio iturri horrek, departamentuan dagoen teknologiarekin batera, hileko BEZaren aitorpenaren zirriborroa egiteko aukera ematen digu, 2021eko ekitaldian ezarritako 330 eta 320 ereduak egitera behartuta daudenentzat. 2022an, hobekuntzak sartu dira eredu horien kalkuluan, eta araudia egokitu egin da BEZ-OSSk ekarritako lauki berriak indarrean jarri eta gero. Zirriborroek emaitza onak izan dituztenez 2023. urtean, hileko 322 aitorpen eredurako ere inplementatu da (entitate taldeen araubide berezia). Beraz, Zergabidea plataforman, aipatutako aitorpenak egin ahal izango dira honako hauek abiapuntutzat hartuta: BIHtik datozen datuak, zergadunen errolda datuak, eta lehendik aurkeztutako beste aitorpen batzuetatik datozen datuak (konpentsatu beharreko kuotak, itzulketak, ordaindutako kuotak), autolikidazio horietan islatu behar badira. Dena den, zergadunak beti deskargatu eta aldatu ahal izango ditu eskainitako datuak.

Horrela, departamentuak herritarren zerga betebeharrak betetzea errazteko estrategiarekin jarraitzen du, administrazioaren esku dauden datuak haien eskura jarriz. Zerbitzu berri horren azpian dagoen filosofia PFEZaren autolikidazio-proposamenekin hasitako berbera da, eta, gainera, zergadun horiei aukera ematen die egiaztatzeko Gipuzkoako Foru Ogasunaren egoitza elektronikoan erregistro liburuak osatzeko bidaltzen den informazioa haien eragiketen errealitatearekin bat datorrela.

TicketBAI sistema Gipuzkoan ezartzeko, fakturak automatikoki pasatu behar izan dira TicketBAItik BIHra, eta gure administrazioa lehena izan da zeregin horretan. Horrek prozesu bat sortzea ekarri du berekin. 2024an, prozesu automatiko hori finkatu behar da, eta bi sistemen arteko balioztapen eta funtzionaltasun guztiak koordinatu.

Orobat, 2024an zehar, jarraipena izango du BIHtik datozen online fakturak AEATrekin eta beste foru administrazioekin trukatzeko egutegiak. Horrek ahalbidetuko du informazio osatuagoa lortzea partzialki garatutako gaietan, hala nola fakturen kontrastean eta 347 ereduko informazioaren birtualizazioan. Fakturen lineako trukearekin behin hasi ondoren, ekitaldi honetan erroldеn lineako trukeari ere ekingo zaio, herritarrei eman beharreko informazioa azkarrago lortzeko eta iruzurrari aurka egitea errazteko.

b) TicketBAI proiektua.

Zerga Iruzurraren kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren esparruan eta ELGAren gomendioei jarraikiz, 2020an azaroaren 6ko 3/2020 Foru Araua onartu zen, Iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena. Bertan xedatzen denez, foru araua onartzean, TicketBAI betebehar berriak berekin dakar gure lurralde historikoko sozietateen gaineko zergaren edo jarduera ekonomikoak egin eta PFEZaren araudia aplikatzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek TicketBAI software bermatzailea erabili beharko dute fakturazio prozesuan.

TicketBAI proiektuaren xedea da ziurtatzea jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoek salmenta eragiketa guztiak aitortzen dituztela.

2023ko ekainaren 1az geroztik, TicketBAI erabiltzera behartuta dauden zergapeko guztiak nahitaezko epearen barruan daude, eta jaulkitzen dituzten fakturen informazio guztia iristen zaigu. Horrek ahalbidetuko digu LiburuBAIren urratsekin jarraitzea, erregistro liburu fiskalak departamentuaren egoitza elektronikoan eraman ahal izan daitezen.

Realizados los cambios necesarios en la gestión interna, en los años precedentes se ha llevado a cabo el análisis de los requisitos técnicos necesarios para la puesta en marcha de todas las funcionalidades que conlleva el SII a nivel interno y externo. Por lo que este año se seguirán mejorando las validaciones y especificaciones técnicas, así como una serie de funcionalidades, como por ejemplo la implementación en este ejercicio de la calculadora de plazos.

Por otro lado, esta fuente de información junto con la tecnología existente en el Departamento, nos permite la elaboración del borrador de declaración de IVA mensual, para los obligados al modelo 330 y modelos 320 que ya se implementó en el ejercicio 2021. Durante 2022 se han desarrollado mejoras en el cálculo de estos modelos, así como adaptaciones normativas por la entrada en vigor de nuevas casillas debido al IVA-OSS. Dado el buen resultado de estos borradores este año 2023 se ha implementado para el modelo mensual 322, REGE. Por lo que, en la plataforma Zergabidea, se podrán elaborar las citadas declaraciones partiendo de los datos provenientes del SII, los datos censales de los contribuyentes, y los datos procedentes de otras declaraciones ya presentadas (cuotas a compensar, devoluciones, cuotas ingresadas) y que tengan que tener su reflejo en estas autoliquidaciones, pudiendo en todo caso el contribuyente descargar y modificar los datos ofrecidos.

De esta manera, el departamento continúa con la estrategia de facilitar el cumplimiento de las obligaciones fiscales de la ciudadanía, poniendo a su disposición los datos que obran en poder de la administración. En este nuevo servicio subyace la misma filosofía iniciada con las propuestas de autoliquidación de IRPF, permitiendo además a estos contribuyentes verificar que la información enviada para conformar los libros registros en la sede electrónica de Hacienda Foral de Gipuzkoa responde a la realidad de sus operaciones.

La implantación en Gipuzkoa del sistema TicketBAI ha requerido crear un proceso de traspaso automático de facturas desde TicketBAI al SII, siendo la primera Administración que ha realizado este traspaso. Durante 2024 hay que consolidar este proceso automático, así como coordinar todas las validaciones y funcionalidades entre ambos sistemas.

Durante 2024 se continúa con el calendario de intercambio de facturas on-line procedentes del SII tanto con la AEAT como con las otras Administraciones Forales. Esto permitirá obtener información más completa en temas parcialmente desarrollados, como es el contraste de facturas y la virtualización de información al modelo 347. Dada la implementación del intercambio on line de las facturas se implementará en este ejercicio el intercambio on line de los censos para una obtención más rápida y ágil de la información a efectos del servicio al ciudadano y a efectos de lucha contra el fraude.

b) Proyecto TicketBAI.

Dentro del marco del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal y siguiendo las recomendaciones de la OCDE, en 2020 se aprobó la Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal. En la misma se dispone que con la aprobación de la Norma Foral, la nueva obligación TicketBAI, implica que todas las Personas físicas y jurídicas, que aplican la normativa de nuestro Territorio Histórico del Impuesto sobre Sociedades o del IRPF que ejerzan actividades económicas, deben utilizar un software garante TicketBAI en su proceso de facturación.

El proyecto «TicketBAI», tiene como finalidad asegurar la declaración de todas las operaciones de venta realizadas por las personas y entidades que desarrollan actividades económicas.

Desde el 1 de junio de 2023 el 100 % de los sujetos obligados a TicketBAI ya están en periodo obligatorio, y disponemos de toda la información de las facturas emitidas, lo que nos ha permitido poner en marcha los siguientes pasos de LiburuBAI, que, en definitiva, supondrá la llevanza de los Libros registros fiscales en la sede electrónica del Departamento.

EK\CV GAO-I-2024-02508

Denbora horretan, hainbat ekintza abiarazi ditugu zergadunei fakturazio sistema berriak arrakastaz ezartzen laguntzeko. 2024an zehar ekintza horiekin jarraituko dugu, eta horien artean hauek aipa daitezke:

* Komunikazio proaktiboak egitea garatzaile informatikoei eta zergadunei, fitxategiek sistemak egiten dituen balioztapenak ez betetzeagatik sortzen diren errore eta errefusen berri emateko, derrigorrezko epean daudenean horiek gerta ez daitezen.

* Zergadunek eta haien ordezkariek bidali dituzten fitxategietatik Foru Ogasunaren egoitza elektronikoan lor dezaketen informazioa etengabe eguneratzea; besteak beste:

— BEZaren aitorpenak prestatzeko behar den informazioaren zerrendak.

— Erroreekin jasotako fitxategien kudeaketa errazten duten zerrendak.

* 2024an, berritasun nagusia da TicketBAI obligazioa betetzen duten enpresaburu guztiei BEZaren hiru hilean behingo 300 ereduaren kalkulagailu bat eskainiko zaiela, jaulkitzen dituzten fakturetan sortutako BEZaren zatian.

Epe ertainean gauzatu nahi den estrategia baten lehen urratsa dugu hori (LiburuBAIrena), zeinak ahalbidetuko baitigu beharrezkoa den informazioa eskuratzea PFEZaren jarduera ekonomikoen etekinei buruzko eranskina eta BEZaren eredu osoa betetzen laguntzeko.

* Gure FakturaBAI aplikazioan aukera eta funtzionalitate berriak garatuko dira, aplikazioa erabiltzen duten zergadunek proposatutako beharrei erantzun, fakturazio kasuistika desberdinetara egokitu eta erabilera erraztuko duten hobekuntzak sartzeko.

Era berean, departamentuak guztiz garrantzitsutzat jotzen du zerga arloko eragileekin lankidetzan jardutea, eta, bereziki, aholkularitzako profesionalekin, elkarteekin, entitateekin, softwarea garatzen duten enpresekin eta abar, haien garrantzia handia denez gero.

Horregatik, azken urteetan egindakoarekin jarraituz, eta eragile horiekin koordinatuta, 2024an erantzungo zaie propio sortu diren kontsulta postontziei, FAQ-ak prestatuko dira, eta behar diren ekintzak gauzatuko dira proiektuaren funtzionamendu egokia finkatzeko. Hori guztia, zergadunek TicketBAI betebeharrak betetzeari buruzko zalantzak ahalik eta arinen eta osoen argitu ditzaten.

Era berean, 2024an egiten jarraituko dira TicketBAI proiektuan lan egiten duen erakundearteko talde teknikoaren aldizkako bilerak, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ere parte hartuta. Talde horretan modu koordinatuan kudeatzen dira TicketBAIrekin lotutako gorabeherak, kontsultak, errekerimenduak eta proposamenak, taldeko kideek eginak izan edo zergadunek, elkarteek, software enpresek eta sistemaren ezarpenak eragindako beste pertsona edo entitate batzuek eginak izan. Zehazki, modu koordinatuan kudeatzen dira kasu konplexu eta berezietan aurkeztutako salbuespen eskaerak eta TicketBAI betebeharren tratamendu eta aplikazioari buruz egiten diren kontsultak.

Era berean, jasotzen den informazioa aztertuko da Kudeaketako eta Ikuskaritzako Zuzendariordetzei beharrezko datuak eman eta aitortzen ez dutenak kontrolatzeko, eta horrek berekin ekarriko du prozedurazko jarduketak abiatzea bai zentsu arloan bai zerga obligazioa kontrolatzeko gaietan.

c) Zerga berezien prozedura berriak.

Orain arte jasotako guztiari erreparatuta, ikusten da azken urteetan zerga betebehar formal desberdinak arautu direla bai zuzeneko zergetan eta bai zeharkakoetan, gehienak kontabilitate arlokoak eta informazioa ematekoak dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez kontabilitateko idaz-

Durante este tiempo hemos puesto en marcha diversas acciones encaminadas a facilitar a los contribuyentes una implantación de éxito de los nuevos sistemas de facturación. Durante 2024 seguiremos con estas acciones, entre las que cabe destacar:

* Comunicaciones proactivas, a los desarrolladores informáticos y a los contribuyentes, de los errores y rechazos que se producen por no cumplir los ficheros con las validaciones que realiza el sistema, para ayudarles a que estos no se produzcan cuando ya se encuentren en periodo obligatorio.

* Actualización continua de la información que los contribuyentes y sus representantes pueden obtener en la sede electrónica de la Hacienda Foral, de los ficheros que han enviado, entre ellos:

— Listados con la información necesaria para la elaboración de las declaraciones del IVA.

— Listados que facilitan la gestión de los ficheros recibidos con errores.

* En 2024, la gran novedad es poder ofrecer a todos los empresarios que cumplen con TicketBAI una calculadora del modelo 300 trimestral de IVA, en la parte del IVA devengado en sus facturas emitidas.

Este es el primer paso de una estrategia a medio plazo, LiburuBAI, que nos permitirá disponer también de la información necesaria para poder asistirles en la elaboración del anexo de rendimientos de actividades económicas del IRPF y del modelo completo del IVA.

* En nuestra aplicación FakturaBAI se desarrollarán nuevas opciones y funcionalidades, atendiendo en muchos casos a las necesidades que nos propone el colectivo de contribuyentes que la utiliza, adaptándola a diferentes casuísticas de facturación, y mejorándola para que resulte más fácil su uso.

Asimismo, desde el Departamento se considera de máxima importancia la colaboración con los actores del ámbito tributario, en especial con los profesionales de la asesoría, asociaciones, entidades, empresas desarrolladoras de software, etc. que son de gran importancia.

Por ello, siguiendo con lo realizado durante los últimos años, durante 2024 y en coordinación con ellos, se atenderán los buzones de consultas creados al efecto, se elaborarán FAQS, y se realizarán todas aquellas acciones que nos permitan consolidar el buen funcionamiento del proyecto. Todo ello con el fin de que las personas contribuyentes puedan resolver las dudas en relación con el cumplimiento de las obligaciones TicketBAI de la forma más ágil y completa posible.

Asimismo, en 2024 se continuará con las reuniones periódicas del grupo técnico interinstitucional, con participación de las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco, que trabaja en el proyecto TicketBAI. En este grupo se gestionan de forma coordinada, incidencias, consultas, requerimientos y propuestas en relación con TicketBAI ya sean instadas por participantes del propio grupo, o cursadas por personas y entidades contribuyentes, asociaciones, empresas de software y el resto de las personas o entidades afectadas por la implantación del sistema. En particular, se gestionan de forma coordinada las solicitudes de exoneración y las consultas sobre el tratamiento y la aplicación de las obligaciones TicketBAI en supuestos complejos o especiales.

Asimismo, se analizará la información recibida para suministrar los datos necesarios a las Subdirecciones de Gestión e Inspección, para el control de los no declarantes, que implicará actuaciones de control censal o de inicio de procedimientos de control de la obligación tributaria.

c) Nuevos procedimientos de Impuestos Especiales.

Según se observa de todo lo recogido hasta el momento, en los últimos años, se vienen sucediendo, tanto en imposición directa como en imposición indirecta, la regulación de diferentes obligaciones tributarias formales, principalmente, en materia de obligaciones contables y otras obligaciones de información, ba-

EK\CV GAO-I-2024-02508

penak, erregistroak edo bestelako fitxategi elektronikoak hornitzearekin dute zerikusia.

Zerga bereziei dagokienez, 2020ko ondorioekin, abian jarri zen fabrikazio zerga bereziari lotutako produktuen kontabilitate sistema, Silicie delakoa. Urte horretatik aurrera, hainbat egokitzapen eta hobekuntza egin dira sistema horretan, eta horiek aukera eman dute, besteak beste, establezimenduek eragiketen aitorpenen bidez ematen zuten informazioa orain derrigorrez bete behar dituzten kontabilitate erregistroetatik eskuratu dadin. 2024an, sistemaren barne mailako berrikuspena egiteaz gainera, zerga berezien kontrol eta esku-hartze lanetan antzeman diren beharretara hobeto egokitu dadin, aurreikusten da hobekuntza batzuk sartzea zergadunen onerako, eta, horretarako, bi zerbitzu garatuko dira nagusiki: eragiketen informazioa zergadunek aurkeztutako erregistroetan oinarrituta eskuratzeko zerbitzu bat, eta izakinak ixteko sistema bat.

Bestalde, badira ingurumen arloko zerga batzuk, hala nola berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga berezia, kontabilitate informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidaltzea exijitzen dutenak.

Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren kasuan, informazio hori bidaltzea 2023az geroztik exijitzen da –obligazio hori zergaren araudian sartu zuen aldaketa 2022ko irailean onetsi zen–.

Bestalde, plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bereziaren kasuan, kontabilitate informazioa emateko betebeharra 2023ko abendutik aurrera ezarri zen, eta zerga indarrean jarri zen egunetik aurrerako informazioa bidali behar da, hau da, urte horretako urtarrilaren 1etik aurrerakoa. 2024an, azken zerga horri dagokionez, aurreikusten da hasierako laguntza batzuk garatzea bai barrurako eta bai establezimenduetarako, eta haien helburua izango da fabrikatzaileei idazpenen informazio laburtua ematea izakinen ondorioetarako, eta fabrikatzaileei eta Batasunaren barruko erosleei idazpen horiei buruz informatzea kontzeptu, gako eta erregimen fiskala zehaztuta.

2. Teknologia berriak aplikatzea arrisku fiskalen analisia etengabe hobetzeko.

Aurreratu dugun bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024. urterako helburu gisa jarri du laugarren belaunaldiko plataforma teknologiko berri bat hedatzea, zerbitzuak Big Dataren eta Adimen Artifizialaren eremuan garatzeko.

Plataforma berriak analisian eta ezarpenean aurrerapausoak egiteko aukera emango du, eta harekin helburu bikoitza lortuko da: zergadunari ematen zaion laguntza hobetzea, batetik, eta iruzurraren aurka egiteko neurri prebentibo gehigarri bat izatea, bestetik.

Era berean, departamentuaren barruan dagoeneko finkatuta eta martxan dauden Big Data proiektuak migratuko ditugu plataforma berrira:

a) Zergadunen arteko harreman proiektua.

2018an proiektu pilotu bat egin zen, zeinean Big Data egitura bat ezarri baitzen Ogasuneko datu baseetan dauden zergadunen arteko harremanei buruzko datuak ustiatzeko.

2019an martxan jarri zen aplikazio batek aukera ematen du, grafoen bitartez, zergadunen artean zerga arloan garrantzia duten harremanak erraz eta dinamikoki ikusteko.

2021ean, lanak indartu ziren bazkideen, administratzaileen eta haien sozietateen arteko harremanei buruzko informazioa hobetzeko, zergadunei buruz ditugun helbideak normalizatzeko eta kasuan kasuko helbidea gure katastroko lokal batekin erlazionatzeko.

sadas en el suministro electrónico de asientos contables, registros u otros ficheros electrónicos a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En lo que respecta a los Impuestos Especiales, con efectos 2020 se implantó un sistema de llevanza de la contabilidad de los productos objeto de los Impuestos Especiales de Fabricación denominado Silicie. Desde dicho año, se han ido sucediendo diferentes adaptaciones y mejoras que, entre otros objetivos, han permitido que la información que facilitaban los establecimientos mediante la presentación de las declaraciones de operaciones, pueda obtenerse de los registros contables que tienen obligación de suministrar éstos. En este año 2024, junto con la revisión del sistema a nivel interno, de cara a su mejor adecuación a las necesidades detectadas en las labores de control e intervención propias de estos impuestos especiales, se prevén mejoras que redunden en beneficio de los contribuyentes, principalmente, con el desarrollo de un Servicio de obtención de información de operaciones calculado en base a los registros presentados por ellos y un Sistema de cierre de existencias.

Por su parte, también ciertos Impuestos Medioambientales, en concreto, el Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero y el Impuesto especial sobre los envases de plástico no reutilizables exigen el suministro de información contable a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso del Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero, se exige la remisión desde 2023 de la información exigida con la entrada en vigor, septiembre de 2022, del cambio regulatorio en el impuesto que estableció la indicada obligación formal.

Por su parte, en el caso del Impuesto especial sobre los envases de plástico no reutilizables, la obligación del suministro contable se estableció desde el mes de diciembre de 2023, incluyendo información desde la vigencia del impuesto, es decir, desde el 1 de enero de dicho año. En este año 2024, en relación con este último impuesto, se prevén el desarrollo de ciertas ayudas iniciales que estarán dirigidas, tanto a nivel interno, como a los establecimientos, y darán información resumen de asientos a efectos de existencias para los fabricantes y de asientos por concepto, clave y régimen fiscal tanto para fabricantes como para adquirentes intracomunitarios.

2. Aplicación de las nuevas tecnologías para la mejora constante del análisis de riesgos fiscales.

Como ya hemos adelantado, para el 2024 la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como objetivo desplegar una nueva plataforma tecnológica de cuarta generación, para el desarrollo de servicios en el ámbito Big Data e Inteligencia Artificial.

La nueva plataforma permitirá avanzar en el análisis e implantación que cumplirán la doble misión de dar, por un lado, una mejor asistencia al contribuyente y, por otro lado, una medida adicional en la lucha contra el fraude de manera preventiva.

Asimismo, migraremos a la nueva plataforma los proyectos Big Data que ya están consolidados y en marcha dentro del Departamento:

a) Proyecto relaciones entre contribuyentes.

En 2018 se realizó un proyecto piloto en el que se implementó una infraestructura de Big Data para explotar los datos de relaciones entre contribuyentes existentes en las bases de datos de Hacienda.

En el año 2019 se puso en marcha una aplicación que permite visualizar de manera fácil y dinámica, mediante grafos, las relaciones con trascendencia tributaria entre los contribuyentes.

Durante 2021, se intensificaron las tareas para mejorar la información sobre relaciones de socios, administradores y sus sociedades y para la normalización de las distintas direcciones que constan de los contribuyentes y la posibilidad de relacionarla siempre con un local de nuestro catastro.

EK\CV GAO-I-2024-02508

2024an, kalitatezkoak diren kanpoko informazio iturriak ere erabiliko dira, esate baterako, Notariotzaren Kontseilu Nagusiak pertsona juridikoen titulartasun errealari buruz osatutako datu baseak, eta horrekin ahalbidetuko da jarduerak lurraldeko mapetan geolokalizatzea.

Laburbilduz, 2024an zehar Grafoen Datu Basearen teknologia horren erabilera orokortuko da. Teknologia horri esker, zergadunek elkarren artean dituzten harreman mota desberdinei buruzko informazioa beste modu batean eskura daiteke, eta zerga iruzurra eragin dezaketen plangintza fiskalak, sozietate egitura berriak eta abar detektatzen laguntzen du. Grafikoen analisiak datuak ikusteko modua aldatzen du, eta edonork erabil dezakeen tresna bat da; ez da beharrezkoa datuen analisian aditua izatea.

Informazioa horrela tratatzeko eskuratutako programa informatikoa ospe handiko programa da, nazioartean kontrastatua, eta finantza delituen ikerketan espezializatua.

Big Data teknologia horren bidez, beste modu batera ikusi nahi dira familia harremanak, sozietate harremanak (bazkidea-sozietatea-administratzaileak), bezeroak eta hornitzaileak, langileak eta abar.

Azaldu dugun bezala, haren bitartez posible da, baita ere, enpresa jardueren eta pertsonen azterketa guztia egitea haien kokapen geografikoaren arabera. Adibidez, adierazten den jarduera ez dela benetakoa ematen duen helbide bat detektatzen bada, erraz aurki daitezke helbide horrekin zerikusia izan duten zergadun guztiak.

Horretarako, departamentua Gipuzkoako helbideak aitortzeko erabiltzen diren zerga ereduak eguneratzen ari da, posta helbide bat eta gure katastroko higiezin bat modu unibokoan identifikatzeko. Horrela, informazio mota horren datuaren kalitatea lortuko dugu, orain arte ezinezkoa zena.

Informazioa ustiatzeko modu berri bat da, zergadun baten harremanen grafora sartzea ahalbidetzen duena, datu ezagunetatik abiatuta, eta bertatik nabigatzea ahalbidetzen duena, egungo kontsulta sistemekin aurkitzea oso zaila den informazio berria aurkituz.

Automatikoki kalkula daiteke zein den biderik laburrena bi zergadunen arteko harremanean, datu iturri anitzak erabiliz, bai Ogasunarenak berarenak, bai beste datu base batzuen informazioarenak, haiekin automatikoki konektatzen baita.

b) Arriskua aztertzeko proiektua, Berehalako Informazio Horniduraren sistemak eskaintzen duen informazioan oinarrituta.

2024an zehar, jasotako informazioa masiboki irentsiko da, gainerako zerga administrazioekin informazioa trukatuz, informazio hori jaso ahala.

Informazio hori guztia askoz ere indartsuagoa den eta adimen artifizialeko teknikak modu eraginkorragoan aplikatzea ahalbidetzen duen plataforma berri batean edukitzeak aukera emango digu aitortutako datuen eta zergadun handiei egotzitakoen arteko inkongruentziak eta anomaliak detektatzeko, eta horrek iruzurra detektatzeko modu berriak irekiko ditu.

3. Heziketa zibiko-tributarioaren sustapena.

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat lehentasunezko jarduketa lerroetako bat da zerga iruzurra justifikatzen duten baldintza sozialak deuseztatzea, finantza publikoak gizarte mailan hobeto ulertzea eta kontzientziazio fiskal handiagoa izatea lortzen duten estrategien bidez.

Horren helburua da zerga obligazioak borondatez betetzea bultzatzea, herritarrak zerga iruzurrak dakartzan justiziarik ezaz eta ondorio kaltegarriez jabearazita eta, gainera, funts publikoen erabilerari buruzko ezagutza sustatuta: zer zerbitzu ematen diren herritarren diruarekin eta berauen bidez nola laguntzen den Gipuzkoa solidarioagoa eta orekatuagoa izaten.

Durante 2024, se incorporarán fuentes de información externas de calidad, como son las bases de datos de titularidad real de las personas jurídicas elaboradas por el Consejo General del Notariado y posibilitará la geolocalización de las actividades en mapas del territorio.

En definitiva, se generalizará el uso de esta tecnología de Base de Datos de Grafos, que permite acceder de una nueva forma a la información de los diferentes tipos de relaciones que los contribuyentes tienen entre sí, y ayuda a detectar planificaciones fiscales, nuevas estructuras societarias, etc., que pueden suponer riesgo de fraude fiscal. El análisis de gráficos cambia la manera de ver los datos y es una herramienta que la puede utilizar cualquiera, no es necesario ser especialista en análisis de datos.

El programa informático adquirido para tratar así la información es un programa de reconocido prestigio y contrastado a nivel internacional, especializado en investigación de delitos financieros.

Con esta tecnología Big Data, se trata de ver de una forma nueva las Relaciones familiares, las Relaciones societarias (socio-sociedad-administradores), Clientes y proveedores, trabajadores, etc.

Como ya hemos explicado, también permite realizar todo el análisis de las actividades empresariales y las personas en función de la localización geográfica donde están. Por ejemplo, si se detecta una dirección donde la actividad que se declara parece que no es real, fácilmente se puede localizar a todos los contribuyentes que han tenido algo que ver con esa misma dirección.

Para ello el Departamento está actualizando los modelos tributarios donde se declaran domicilios de Gipuzkoa, con el objeto de identificar de forma unívoca una dirección postal con un inmueble de nuestro catastro lo que lograremos una calidad del dato de este tipo de información que hasta ahora no era posible.

Es una nueva forma de explotación de la información que permite entrar al grafo de relaciones de un contribuyente partiendo de datos conocidos y navegar por el mismo descubriendo nueva información muy difícil de localizar con los sistemas actuales de consultas.

Se puede calcular automáticamente cuál es el «camino más corto» de relación entre dos contribuyentes, utilizando fuentes de datos múltiples, tanto de la propia Hacienda, como información de otras bases de datos ajenas, con las que se conecta automáticamente.

b) Proyecto análisis de riesgo en base a información del sistema de Suministro Inmediato de información SII.

Durante 2024 se va a realizar la ingesta masiva de la información recibida por intercambio de información con el resto de las Administraciones Tributarias, a medida que se vaya recibiendo.

Disponer de toda esta información en una nueva plataforma mucho más potente y que permite aplicar técnicas de inteligencia artificial de una forma más eficiente, nos va a permitir detectar incongruencias y anomalías entre los datos declarados y los imputados a los grandes contribuyentes, lo que abrirá nuevas formas de detección del fraude.

3. Promoción de la educación cívico-tributaria.

Una de las líneas de actuación prioritarias para el Departamento de Hacienda y Finanzas es eliminar los condicionamientos sociales que justifican el fraude fiscal, a través de estrategias que consigan una mejor comprensión social de las finanzas públicas y una mayor concienciación fiscal.

Con ello, se pretende impulsar el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales concienciando a la ciudadanía de la injusticia y las consecuencias perniciosas que acarrea el fraude fiscal y, además, promoviendo el conocimiento sobre el destino de los fondos públicos: qué servicios se prestan con su aportación y de qué manera contribuyen a lograr de Gipuzkoa un entorno más solidario y equilibrado.

EK\CV GAO-I-2024-02508

Horretarako, programa hauek gauzatzen ari dira:

a) Ikastetxeetako heziketa programa.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta foru aldundiek lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten 2017ko uztailaren 7an, heziketa programa hau garatzeko asmoz: ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat, EAEko ikastetxeetan ezarriko dena. Helburua da, adin goiztiar batetik jada, ikasleen kontzientzietan zerga iruzurrezko jokabideak deslegitimizatzea.

Programaren garapenak izan duen balorazio positiboak agerian utzi du merezi duela hura Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan finkatzea eta pixkanaka ikastetxe gehiagotara eta ikasle talde handiago batera zabaltzea. Testuinguru horretan, parte hartu duten administrazio publikoek beharrezkotzat jo dute unitate didaktiko komun hori ezartzen laguntzeko ekintzei jarraipena ematea, hitzarmen berri bat sinatuz.

Horrela, 2021eko otsailaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundiek hitzarmena sinatu dute, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate komun bat ezartzeko.

Nabarmentzekoa da hitzarmen berriak beste bi ikasturte luzatzeko aukera aurreikusten duela, 2025eko irailaren 30era arte.

| *Unitate didaktikoa* | *2021/2022* | *2022/2023* |
|---|---|---|
| Ikastetxeak | 92 | 96 |
| Ikasle kopurua | 3.597 | 3.794 |

2023/2024 ikasturtean 96 ikastetxek eman dute izena, unitate didaktikoaren bizitzako kopururik handiena.

b) Unibertsitateetako heziketa programa.

COVID-19aren pandemiak markatutako bi urteren ondoren (unibertsitateekiko topaketak atzeratzea ekarri zuen), joan den urtean Ogasun eta Finantza Departamentuak berriro ekin zion Gipuzkoako 4 unibertsitateekin mintegiak edo prestakuntza jardunaldiak egiteari. EHU Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko eta Nafarroako Tecnum-Unibertsitateko ikasleekin egindako topaketen helburua ikasleek fiskalitatearen arloan dituzten intereseko gaiak jorratzea da. 9 mintegi antolatu ziren, 12 saiotan. Mintegi horiek unibertsitateen egoitzetan egin ziren, modu erremotoan, eta lehen aldiz GFOren egoitzan ere hartu genituen ikasleak. Lehen aldiz ere, EHUren Egokituz udako campusean parte hartzen duten ikasleek GFO hobe ezagutzeko aukera izan zuten.

Herritarren kontzientziazio lanean garrantzi berezia izateaz gain, topaketa horiek lagungarriak dira ikasleek lehen harremana izan dezaten Gipuzkoako Ogasunarekin, eta hori ezinbestekoa da etorkizunean talentu berriak erakartzeko Zerga Administraziora.

4. Zergapekoek beren zerga obligazioak borondatez betetzea sustatzeko ekintzen sustapena.

Aurrerantzean ere ahalegin handiak egingo dira zergapekoei autolikidazio eta aitorpenetan teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzen laguntzeko eta, bereziki, hirugarren pertsonek komunikatu dituzten, Foru Ogasunean dauden eta zerga arloan garrantzia duten datuak autolikidazioetara eramatea ahalbidetzen duten laguntza programak garatzeko.

Por ello se están llevando a cabo los siguientes Programas:

a) Programa educativo en los centros escolares.

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) y las Diputaciones Forales suscribieron el 7 de julio de 2017 un convenio de colaboración para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la CAE, de modo que, desde una edad temprana, se deslegitimen en las conciencias del alumnado las conductas fiscalmente fraudulentas.

La valoración positiva del desarrollo del programa ha reafirmado el objetivo de consolidar el programa en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi y extenderlo de forma progresiva a más centros y a un mayor colectivo de alumnado. En este contexto, las Administraciones Públicas participantes han considerado necesario dar continuidad a las acciones de apoyo a la implantación de dicha unidad didáctica común mediante la suscripción de un nuevo convenio.

De esta forma, con fecha 9 de febrero de 2021, se ha firmado el Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023.

Es de destacar que el nuevo convenio prevé la posibilidad de que se acuerde la prórroga por un período de dos cursos escolares adicionales, hasta el 30 de septiembre de 2025.

| *Unidad didáctica* | *2021/2022* | *2022/2023* |
|---|---|---|
| Centros | 92 | 96 |
| N.º alumnos | 3.597 | 3.794 |

En el curso 2023/2024 son 96 los centros inscritos, manteniéndose el valor más alto de la vida de la Unidad Didáctica.

b) Programa educativo en las universidades.

Tras dos años marcados por la pandemia del COVID-19, que supuso el aplazamiento de los encuentros con las universidades, el Departamento de Hacienda y Finanzas retomó el curso pasado la realización de seminarios o jornadas formativas con las 4 universidades de Gipuzkoa. Los encuentros, con alumnos de la UPV/EHU (Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea), Universidad de Deusto, Mondragón Unibertsitatea y Tecnum-Universidad de Navarra, tienen como objetivo tratar temas de interés del alumnado en materia de fiscalidad. Se organizaron 9 seminarios, en 12 jornadas diferentes. Estos seminarios tuvieron lugar bien en las sedes de las universidades, a nivel remoto, y por primera vez tuvimos la ocasión de recibir también a los estudiantes en la sede de la HFG. También por primera vez, los estudiantes que toman parte en el Campus de Verano Egokituz de la UPV pudieron acercarse a conocer mejor la HFG.

Además de tener una especial importancia en la labor de concienciación de la ciudadanía, estos encuentros ayudan a los estudiantes a tener un primer contacto con la Hacienda Guipuzcoana, lo que resulta indispensable para la atracción, en el futuro, de nuevo talento a la administración tributaria.

4. Fomento de las acciones dirigidas a promover el cumplimiento voluntario por los obligados tributarios de sus obligaciones fiscales.

Se seguirán realizando grandes esfuerzos en el área de asistencia a los obligados tributarios en la realización de autoliquidaciones y declaraciones mediante el empleo y aplicación de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos, y en concreto, en el desarrollo de programas de ayuda para la confección de autoliquidaciones que permitan la importación a éstas últimas de los datos con trascendencia tributaria obrantes en la Haciendas Forales comunicados por terceras personas.

EK\CV GAO-I-2024-02508

a) Zergabidea plataforma.

Ogasun eta Finantza Departamentua aitzindaria izan da zergadunari zuzendutako zerbitzuak sustatzen, eta, zehazki, zerga ereduen laguntza programak prestatzen. Etengabeko eraldaketa teknologikoak eta administrazio elektronikora egokitzeko beharrak Zergabidea plataforma sortzea ekarri zuen. Hona hemen plataformaren ezaugarri nagusiak:

* Zergabidea zerga eredu desberdinak elaboratzeko eremua da. Eredu guztiak prestatzeko era bateratu eta normalizatu egin da, horren helburua izanik Zergabidea zergadunen sarbide puntua izatea eta bertan aurkitzea beren zerga betebeharrak betetzeko behar dituzten tresnak.

* Plataforma horrek sarrera bateratua ere ematen die zerga kudeaketan aurkeztu behar diren idazki guztiei, eta zergadunei, txantiloien bidez, hasiera-hasieratik izapidetzeko behar den informazio guztia sartzeko eskatzen die, Foru Ogasunak gerora errekerimendurik egin ez dezan, eta, beraz, erantzuteko epeak atzeratu ez daitezen. Barnean sartuta daude:

— Proposamenen aurkako alegazioak: likidazio proposamenak, zehapen proposamenak...

— Likidazioen aurkako errekurtsoak (kuotengatik, interesengatik, zehapenengatik, errekarguengatik...).

— Bidegabeko itzulketen eskaerak, autolikidazioak zuzentzekoak, berandutze interesenak...

— Aitorpena ez aurkezteagatik bidalitako informazio errekerimenduen erantzunak...

— Beste batzuk.

* Zergabideak mahaigain fiskal bat du hodeian, eta bertan zergadun bakoitzak eremu pribatu bat dauka aitorpenak prestatzeko: sistema eragile eta nabigatzaileen mendekotasun teknologikoak saihesten ditu, eta, hari esker, desagertzen dira ekipoetan programak instalatu eta eguneratu beharrak dakartzan arazoak.

Lan eremu pribatuan sartzen den informazioa erabat konfidentziala da, baita Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat ere.

Eremu pribatura sartzeko, bi identifikazio mota erabili daitezke: ahula (erabiltzaile-pasahitza) edo indartsua (pasahitz operatiboa, B@kQ-a, ziurtagiria). Identifikatzeko moduak baldintzatzen ditu zergadunak Zergabidean dituen funtzionalitateak.

* Edozein gailutatik sartu daiteke Zergabidea plataformara.

* Fitxategien inportazioak aukera ematen du zergadunak beste laguntza programa batzuk erabilita egindako aitorpenak Zergabidean integratzeko.

* Zerga eredu jakin batzuen kasuan, datu fiskalak egozteko aukera ematen du, hau da, Ogasunak zergadunari buruz dituen datuak inportatu daitezke eta, aldi berean, aitorpenaren zirriborroa prestatu. Une honetan, informazioa zuzenean inportatuz (PFEZeko eredua, edo BEZeko 320 eta 330 ereduak) edo beharrezkoa den informazioa emanez (JEZ, SZ, BEZ, zentsu aitorpenak), posible da datu horiek aurkeztu behar diren autolikidazioetara iraultzea, zergadunek beren aitorpenak aldatu edo osatzeko aukera oztopatu gabe. Horrek esan nahi du zergadunek modu erraz eta seguruan bete ditzaketela beren zerga betebeharrak, izapide burokratikoak aurreztuz eta dokumentaziorik aurkeztu gabe.

* Datuak egozteko funtzionalitatea gainerako autolikidazioetara zabalduz joango da, datuak Ogasunean dauden neurrian, modu erraz eta intuitiboan, azken helburua baita autolikidazioak aurkezteko betebeharra zergadunek ahal den errazen betetzea, Ogasunaren gardentasun helburuan sakonduz eta zergadunei beren zerga betebeharrak betetzen lagunduz.

a) Plataforma Zergabidea.

El Departamento de Hacienda y Finanzas ha sido pionero a la hora de potenciar los servicios al contribuyente, concretamente en la elaboración de programas de ayuda de los distintos modelos tributarios. La continua transformación tecnológica y la necesidad de adaptarse a la administración electrónica propició la creación de la plataforma Zerga, cuyas características más relevantes se detallan a continuación:

* Zergabidea es el área de elaboración de los distintos modelos tributarios. Se ha unificado y normalizado la elaboración de todos los modelos con el objetivo de que Zergabidea sea el punto de acceso donde los contribuyentes tengan a su disposición las herramientas necesarias para cumplir con sus obligaciones tributarias.

* Esta plataforma también sirve de entrada unificada para todos los escritos a presentar en gestión tributaria, dirigiendo a los contribuyentes mediante plantillas a incluir toda la información necesaria para su tramitación desde un primer momento, evitando requerimientos posteriores desde la Hacienda Foral, y por lo tanto dilaciones en los plazos de respuesta. Se incluyen:

— Alegaciones a propuestas: de liquidación, de sanción, etc.

— Recursos contra liquidaciones: de cuota, de intereses, de sanción, de recargo, etc.

— Solicitudes: de devolución de ingresos indebidos, de rectificación de autoliquidaciones, de intereses de demora, etc.

— Contestaciones: a requerimientos de información, por no presentar la declaración, etc.

— Otros.

* Zergabidea está dotado de un escritorio fiscal en la nube, donde cada contribuyente tiene un área de elaboración privada: evita dependencias tecnológicas de sistemas operativos y navegadores y desaparecen los problemas de instalación y actualización de programas en los equipos.

La información incluida en el área privada de trabajo es totalmente confidencial, incluso para el Departamento de Hacienda y Finanzas.

Al área privada se puede acceder mediante identificación débil (usuario-contraseña) o fuerte (clave operativa, B@kQ, certificado). El modo de identificación condiciona las funcionalidades accesibles para el contribuyente en Zergabidea.

* La plataforma Zergabidea es accesible desde cualquier dispositivo.

* La importación de ficheros permite la integración en Zergabidea de declaraciones confeccionadas con otros programas de ayuda que pueda utilizar el contribuyente.

* Para determinados modelos tributarios permite imputar datos fiscales, que supone importar los datos que Hacienda dispone del contribuyente y al mismo tiempo confeccionar un borrador de la declaración. En este momento se permite ya mediante su importación directa (IRPF e IVA modelos 330, 320) o facilitando la información necesaria (IAE, IS, IVA, declaraciones censales...) el volcado de estos datos en las autoliquidaciones a presentar, sin perjuicio de que los contribuyentes puedan modificar o completar sus declaraciones. Esto supone que los contribuyentes puedan cumplir con sus obligaciones tributarias de una forma sencilla y segura, con el consiguiente ahorro en trámites burocráticos y exigencias de documentación.

* La funcionalidad de imputación de datos se irá extendiendo al resto de autoliquidaciones, en la medida en que los datos consten en Hacienda, de una manera sencilla e intuitiva con el objetivo final de que la obligación de presentación de autoliquidaciones por parte de los contribuyentes suponga el menor esfuerzo posible, ahondando en el objetivo de esta Hacienda de transparencia y ayuda a los contribuyentes a la hora de cumplir con sus obligaciones tributarias.

EK\CV GAO-I-2024-02508

* Zergabideak bitarteko elektronikoen erabilera bultzatzen du, eta Administrazio Elektronikoaren Legean jasotako arauak betetzen ditu, administrazio elektroniko integratuari erantzuna ematen baitzaio.

* Zergabidea plataformatik posible da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoarekin zuzenean konektatzea, eta bertan edozein zerga eredu aurkeztea.

* Plataformak aurkezpen prozesu guztiak homogeneizatzea lortu du, eta horrek sinplifikazioa eta efizientzia handiagoa ekarri die.

* Elaboraziorako plataforma barne erabilerarako ere sartu da zergen kudeaketari begira, halako moduz, non posible baita funtzionario batek hainbat zerga eredu prestatu eta aurkeztea. Era horretan, prozesuak optimizatzen dira, kalkulua eta funtzionamendu orokorra bateratuz, bai zergadunentzat, bai barne kudeaketarako, hau da, autolikidazio lagunduaren aurkezpena deritzona egiten da.

* Zergabidean, zerga guztietarako, bateratu eta guztiz berritu da ordaintzeko emaitza duten autolikidazioen ordainketaren kudeaketa, eta momentu honetan kudeaketa azkarra eta malgua da, ordaintzeko 3 modalitaterekin, eta ordainketa zatikatu edo geroratzeko aukerarekin. Halaber, banku kontuen kudeaketa normalizatu eta eguneratu da zergadunentzat, hala sarreretarako nola itzulketetarako, eta Ogasunean jasota dauden kontuetara sartzea ahalbidetzen zaie, bai eta kontu berriak gehitzea ere.

* Bestalde, autolikidazio osagarriak eta ordezkoak aurkezteko aukera sartu da plataforman, aurretik aitorpen bat aurkeztu den kontuan hartuta, eta laguntza pertsonalizatua eskaintzen da zein zerga aurkeztu nahi den eta jatorrizko aitorpenak zer emaitza duen. Kasu horietan, mahaigain bakarra egongo da Ogasun osorako.

2021eko ekitaldian, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga autolikidatzeko 671, 670 eta 672 ereduen prestaketa eta aurkezpena ezarri ziren plataforman, eta ekitaldi honetan, matrikulazio zergari eta eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagozkien eredu guztiak inplementatuko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira eragile desberdinekin indarrean dauden hitzarmenak, eta, bereziki, notarioekin sinatutakoak eta 2023ko ekitaldian elkargo profesionalekin formalizatutakoak.

Notarioekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, eta, zehazki Ancertekin formalizatukoari dagokionez, ekintza hauek burutu dira:

— 60X ereduak Zergabidean aurkezteko sistema integratzea, aurkeztutako informazioaren kalitatea hobetuz, plataforman egiten diren balidazio berberak egiten baitira.

— 671 eredua Zergabidean aurkezteko sistema integratzea.

— Titulartasun errealen plataformako datuak eskuratzea.

2024rako honako ekintza hauek aurreikusten dira:

— Notario guztiei zabaltzea 671 eredua Zergabidean aurkezteko aukera.

— 672 eredua Zergabidean aurkezteko sistema integratzea.

— Gure sistemak integratzea titulartasun errealen plataforman eskuratutako datuekin.

Eredu horiek aurkezteko, hainbat profil ezarri dira, eta horiek ahalmen gehiago edo gutxiago izan ditzakete autolikidazio horiek aurkezteko garaian:

* Zergabidea supone un impulso en el uso de los medios electrónicos y cumple con los aspectos normativos recogidos en la Ley de Administración Electrónica, donde se da respuesta a la administración electrónica integrada.

* Desde Zergabidea es posible la conexión directa con la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, donde se puede realizar la presentación de cualquier modelo tributario.

* Zerga ha conseguido homogeneizar todos los procesos de presentación, lo que conlleva una simplificación y mayor eficiencia en los mismos.

* La plataforma de elaboración se ha incluido para el uso interno, de cara a la gestión tributaria, de forma que es posible que un funcionario elabore y presente distintos modelos tributarios. De esta forma se optimizan procesos, unificando el cálculo y el funcionamiento general tanto para los contribuyentes como para la gestión interna, la llamada presentación de autoliquidación asistida.

* En Zergabidea, para todos los impuestos, se ha unificado y renovado totalmente la gestión del pago en los casos de autoliquidaciones con resultado a ingresar, y en este momento se da una gestión rápida y flexible, con 3 modalidades de pago, y la posibilidad de solicitar el fraccionamiento o aplazamiento del mismo. También se ha normalizado y actualizado la gestión para los contribuyentes de sus cuentas bancarias, tanto para ingresos como devoluciones, dando la posibilidad de acceder a las c/c que ya constan en Hacienda, así como la posibilidad de incluir nuevas cuentas.

* Por otro lado, se ha incluido en esta plataforma la posibilidad de presentación de autoliquidaciones complementarias y sustitutivas, teniendo en cuenta si se ha presentado ya una anteriormente, y ofreciendo ayuda personalizada dependiendo del impuesto que se quiera presentar y el resultado de la declaración original. En estos casos, existirá un único escritorio para todo Hacienda.

En el ejercicio 2021 se implementó en la plataforma la elaboración y presentación de los modelos 671, 670 y 672 de autoliquidaciones del impuesto sobre sucesiones y donaciones, y en este ejercicio se implementarán los modelos del impuesto de matriculación y de todos los asociados al Impuesto sobre Transmisiones y AJD. Para ello se tendrán en cuenta los convenios vigentes con los diferentes agentes, en especial los firmados con los notarios y los firmados con los diferentes colegios profesionales durante el ejercicio 2023.

Respecto a este convenio firmado con los notarios, en concreto con Ancert, ya se han realizado las siguientes acciones:

— Integración de su Sistema para la presentación de los modelos 60X en Zergabidea, mejorando la calidad de la información presentada al realizarse las mismas validaciones que en la plataforma.

— Integración de su Sistema para la presentación del modelo 671 en Zergabidea.

— Obtención de datos de la plataforma de Titularidades Reales.

Para 2024 se prevé implementar las siguientes acciones:

— Extender la integración de la presentación del modelo 671 en Zergabidea a todos los notarios.

— Integración de su Sistema para la presentación del modelo 672 en Zergabidea.

— Integrar nuestros sistemas con los datos obtenidos en la plataforma de Titularidades Reales.

Para la presentación de estos modelos se han establecido una serie de perfiles que podrán tener más o menos facultades a la hora de presentar estas autoliquidaciones:

Oro har, plataformak aipatu diren autolikidazioak prestatu, ordaindu eta aurkezteko aukera ematen du eta emango du aurrerantzean ere. Hala ere, aipatutako hitzarmenei atxikitako profesionalek erregistro publiko batean aurkeztu behar dituzten autolikidazioak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, notarioek egindakoez gain.

Bestetik, lehen adierazi den bezala, plataforma honek eskaintzen dituen funtzionalitateak aprobetxatuko dira, zergadunak hala nahi badu, funtzionario batek autolikidazioa aurkezten lagundu diezaion jarduera ekonomikorik gabeko partikular batek ibilgailu bat saltzen duen kasuan; izan ere, profilagatik eta maiztasunagatik, oso interesgarritzat jotzen da hori egin ahal izatea.

2022ko ekitaldian, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen 60-A, 60-S eta 60-X ereduak bete eta aurkezteko aukera inplementatu zen plataforman, eta 2023ko lehen hiruhilekoan 620 eredua gehitu da. Bakar-bakarrik, 565 eredua falta da sartzeko, eta hori egiten denean eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eredu guztiak egongo dira sartuta. Zergabidearen barruan, baimenduak kudeatzeko sistema bat ere eratu da. Sistema horri esker, departamentuarekin hitzarmen indardunak dituzten eragileek, batez ere azken bi ekitaldietan notarioekin eta elkargo profesionalekin sinatutakoak, sarbide espezifikoa dute. Aplikatzen diren zerga berriak eta praktika tributarioaren errealitate berriak direla-eta, idazkiak eta autolikidazioak aurkezteko aukera berriak ezarri dira.

2022. urtea mugarri garrantzitsua izan zen plataformaren barruan 036 eredua zentsuko datuen argazki bezala gehitu zelako; herritarrari begira pentsatutako zerbitzu berri horrek departamentuan dagoen zerga informazio guztia eskuratzeko aukera ematen dio zergadunari. 2023. urtean zehar funtzionalitate berriak gehitu dira ereduan, aurkezpen telematikoa sustatzeko.

Plataformak eskaintzen dituen funtzionaltasunei esker, 2022an posible izan zen azkar gehitzea krisi energetikoari aurre egiteko aparteko neurri gisa sortutako zerga eredu eta idazki berriak; puntu honetan, aipatzekoak dira 200 euroko laguntza eskaera diru-sarrera gutxiko pertsona fisikoentzat, eta hidrokarburo batzuen aparteko eta aldi baterako hobariak itzultzeko eskaera.

2024ko ekitaldi honetan, aukera ezartzen da Auzitegi Gorenaren epaietatik eratorritako zuzenketak eskatzeko; izan ere, ikusita zer kolektibo dagoen horietan ukituta, eskaera horiek asko izan daitezke eta kolektibo horri dagokion tramitazioa beharko dute.

Europar Batasuneko SEPA kontuak erabiltzeko aukera gaitu da, zerga autolikidazioetatik ondorioztatzen den zenbatekoa ordaintzeko.

2022ko ekitaldia ere baliagarri gertatu da errentako autolikidazio proposamenen sistema plataforman integratzeko, eta, horri esker, hobekuntzak egin ahal izan dira zergadunari begira, emaitza kobratu-ordaintzeari dagokionez, eta beste jauzi kualitatibo bat eman da Administrazio Elektronikora egokitzeko.

FakturaBAI sistema finkatzeko ere balio izan du, zergadunei TicketBAI betebeharra azkar eta erraz betetzeko aukera ematen dien neurrian.

2024. urteari begira, plataforman eskuragarri dauden eredu guztietako araudian hobekuntzak eta egokitzapenak egiteaz gainera, helburu nagusia da Zergabidean sartzea egiteke dauden eredu guztiak, eta horien artean 565 eredua eta 604 eredua, transakzio finantzarioen gaineko zergari dagokiona. 2023ko ekitaldian IFZ telematikoa ere ezarri da, eta, horrek berekin ekarri du administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartutakoek oso kasu bakanetan joan behar izatea zerga bulegoetara. Gainera, horrek ahalbidetu du administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartuta ez dagoen kolektiboan jartzea arreta.

Con carácter general, la plataforma permite y permitirá la confección, pago y presentación de las referidas autoliquidaciones. Ahora bien, solamente se podrán presentar las autoliquidaciones que a su vez deban ser presentadas ante un registro público por los profesionales adheridos a los convenios citados, además de los elaborados por los notarios.

Por otro lado, como ya se ha comentado se aprovecharán las funcionalidades que ofrece esta plataforma para que en el caso que el contribuyente lo desee sea un funcionario el que le asista en la presentación de la autoliquidación correspondiente en el caso de venta de una particular sin actividad económica de un vehículo, ya que por el perfil y por su frecuencia se considera interesante.

En el ejercicio 2022 se implementó en la plataforma la elaboración y presentación de los modelos de transmisiones y AJD 60-A, 60-S y 60-X. Durante el primer trimestre de 2023 se ha implementado el modelo 620 y quedará el modelo 565 para finalizar con la elaboración de los modelos relativos al impuesto de trasmisiones y AJD. Zergabidea cuenta también con un sistema de gestión de autorizados, que permite un acceso específico para los diferentes agentes que cuentan con convenios vigentes con el Departamento, en especial los firmados con los notarios y con los diferentes colegios profesionales durante los dos últimos ejercicios. Debido a los nuevos impuestos y realidades de práctica tributaria se han establecido nuevas posibilidades de presentación de escritos y autoliquidaciones.

2022 supuso un hito importante por la incorporación en la plataforma del modelo 036 como la foto de datos censales, nuevo servicio de cara al ciudadano que permite al contribuyente obtener toda la información tributaria que consta en el Departamento. Durante 2023 se han incorporado nuevas funcionalidades en el modelo que fomenten la presentación telemática.

Las funcionalidades que ofrece la plataforma permitieron durante 2022 la incorporación rápida de nuevos modelos tributarias y/o escritos surgidos como medidas excepcionales para hacer frente a la crisis energética: en este punto cabe destacar la solicitud de ayuda de 200 euros para personas físicas de bajo nivel de ingresos y la Solicitud Devolución Bonificaciones extraordinarias y temporales de algunos hidrocarburos.

En este ejercicio 2024 se instaura la posibilidad de solicitud de rectificaciones derivadas de Sentencias del Tribunal Supremo, que por el colectivo afectado pueden ser masivas y tienen que conllevar una tramitación acorde a ese colectivo.

Posibilidad de utilizar cuentas SEPA de la Unión Europea para el pago del resultado a ingresar de diferentes autoliquidaciones tributarias.

También el ejercicio 2022 ha servido para integrar el sistema de propuestas de autoliquidación de renta dentro de la plataforma, permitiendo mejoras de cara al contribuyente en cuanto al cobro-pago del resultado y dando otro salto cualitativo en la adaptación a la Administración Electrónica.

También ha servido para consolidar el sistema FakturaBAI, que permite a los contribuyentes cumplir de forma rápida y sencilla con la obligación TicketBAI.

De cara a 2024, además de las mejoras y adaptaciones normativas a todos los modelos ya disponibles en la plataforma, como objetivo principal está la incorporación en Zergabidea de todos los modelos pendientes, entre los que hay que destacar el modelo 565 y el modelo 604 correspondiente al Impuesto de Transacciones Financieras. En el ejercicio 2023 también se ha implementado el NIF telemático, haciendo de esta manera, muy residual, el tener que acudir a las oficinas tributarias para los obligados a relacionarse telemáticamente con la administración, pudiendo centrarse dicha atención en el colectivo no obligado a la relación telemática con la administración.

Bestalde, aurten hobekuntzak egingo dira idatziak Zergabidea bidez aurkezteko, kontuan izanda bai urte hauetako esperientzia eta bai kanpoko zein barneko erabiltzaileen eskaerak, betiere zerbitzu eraginkorrago eta errazago bat emateko.

Aldi berean, une honetan egoki ikusten da plataformak eboluzio bat izatea zergen kudeaketa normalizatu dadin: lan egiteko modu komun bat lortu behar da eredu guztietarako, zerbitzu guztien beharrak kontuan hartuta, departamentuko zerga prozeduren kudeaketa eta tramitazioa homogeneizatzeari begira.

b) Zerga Kudeaketak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk.

Horrez gain, kudeaketa zerbitzuek jarduketa hauek egingo dituzte 2024an:

* Itzulketei ahalik eta azkarren erantzutea, BEZekoei bereziki, sistemari likidezia emateko.

* Bideotutorialak argitaratzea zerga ereduak aurkezten laguntzeko, eta, bereziki, eredu horiek beren lanbideagatik tributuen esparrutik kanpo geratzen diren pertsonek aurkezten dituztenean (ahaideen artean eskudirua ematea, 347 eredua, errenta, egoitza fiskalaren aldaketa).

* PFEZaren irizpideak argitaratu eta eguneratzeaz gain, sozietate zergaren eta zentsuaren inguruko irizpideak argitaratu dira. Eta aurten BEZaren irizpideak ere argitarako dira, tributuak aplikatzeko beharrezkoa den segurtasun juridikoa indartzeko.

* 10 teknikari sartuko dira BEZaren kudeaketan lagundu eta erantzun epea azkartzeko, hala itzulketetan nola zuzenketa, kontsulta eta abarren erantzunetan.

* Errenta eta ondare kanpainan aitorpenen aurkezpena errazteko jarduketekin jarraituko da:

— Fortuna handien gaineko elkartasun zerga berria aplikatuko da, webgunean eduki informatiboak jarriz eta Zergabidean internet bidez aurkezteko programa espezifiko bat argitaratuz, haren aitorpena prestatzeko ondarearen aitorpena deskargatzeko aukera emanda.

— Lan mutualitateei ekarpenak egin zizkieten erretiratutako pertsonek tratamendu tributario espezifikoa izango dute aitorpena aurkezteko hiru modalitateetan (proposamena, mekanizatua eta internet), Auzitegi Gorenaren 255/2023 epaiak eskubidea eman baitie beren errenta aitorpenean erretiro pentsioa sartzeko, murriztapen bat aplikatuta.

— Kanpainaren webgunea:

≡ Azken kanpainan zerga araudia interpretatzeko irispideei buruz lehen aldiz sartu zen apartatua eguneratzea.

≡ Zerbitzu telematikoetan sartzeko BAKQ-a erabili dadila sustatzea. Besteak beste, zerga informazioa eskuratzea eta aitorpenak internet bidez aurkeztea daude zerbitzu horien artean. Kontuan izan behar da BAKQ-a internet bidez eskura daitekeela inora bertaratu beharrik gabe, eta aukera ematen duela hirugarren pertsonen ordez jarduteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zein beste administrazio batzuen zerbitzu telematikoetara sartzeko.

≡ Gidaliburua prestatzea.

— Giza baliabide gehiago jartzea arreta telefonikorako:

≡ Azken bi kanpainetan izan duen harrera ona dela eta, telefono bidezko arreta zerbitzua mantentzen da arratsaldeetan, kontsulta konplexuak dituzten deietarako eta autolikidazio proposamenaren emaitza aldatzeko egiten diren deietarako.

≡ 25 teknikariz osatutako talde batek modalitate mekanizatuko errenta aitorpenak egingo ditu kanpainan zehar, eta kanpainako lehen astean zehar telefono deiei erantzungo die, errenta mekanizatua hasi baino lehen.

Por otro lado, este año se realizarán las mejoras en la presentación de escritos por Zergabidea teniendo en cuenta la experiencia de estos años y las solicitudes de los usuarios externos e internos para así poder ofrecer un servicio más eficiente y sencillo.

Y paralelamente a ello es el momento de evolucionar la plataforma con el objetivo de normalizar la gestión tributaria: conseguir una forma de trabajo común posible para todos los modelos, teniendo en cuenta las necesidades de todos los servicios, de cara a la homogeneización de la gestión y tramitación de los procedimientos tributarios del Departamento.

b) Otros servicios que ofrece la Gestión Tributaria.

Adicionalmente, en 2024 los servicios de gestión desarrollarán las siguientes actuaciones:

* Atender con la mayor celeridad posible a las devoluciones, en especial a las de IVA, para inyectar liquidez en el sistema.

* Publicación de videotutoriales que ayuden en la presentación de los diferentes modelos tributarios, incidiendo en los que presentan personas no vinculadas por su profesión al ámbito tributario, donación de efectivo entre familiares, modelo 347, renta, cambio de domicilio fiscal.

* Además de la publicación y actualización de criterios de IRPF, se han publicado criterios de IS y censal. Y en este año se publicarán también criterios de IVA, incrementándose la seguridad jurídica necesaria para la aplicación de los tributos.

* Incorporación de 10 técnicos para apoyar la gestión del IVA y acelerar los plazos de repuesta tanto en cuanto a devoluciones como en cuanto a contestación de rectificaciones, consultas... etc.

* Se seguirán desarrollando las actuaciones que faciliten la presentación de las declaraciones en la campaña de renta y patrimonio:

— Incorporación del nuevo impuesto de solidaridad de las grandes fortunas con contenidos informativos en la web y con programa específico en ZergaBidea para su presentación por internet permitiendo para su elaboración la descarga de la declaración de patrimonio.

— Tratamiento tributario específico en las tres modalidades de presentación (propuesta, mecanizada e internet) a las personas jubiladas que realizaron aportaciones a mutualidades laborales y, que en aplicación de la sentencia 255/2023 del Tribunal Supremo, tienen derecho a incluir en su declaración de renta la pensión de jubilación con una reducción.

— Web de campaña:

≡ Actualización del apartado con criterios de interpretación de la normativa tributaria que se incluyó por primera vez para la última campaña.

≡ Fomento del empleo de la BAKQ para el acceso a los servicios telemáticos entre los que se encuentran la información fiscal y la presentación de declaraciones por internet. A tener en cuenta que la BAKQ se puede obtener por internet sin personación, permite actuar en representación de terceras personas y acceder a servicios telemáticos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de otras administraciones.

≡ Elaboración del manual de divulgación.

— Refuerzo en los medios humanos para la atención telefónica:

≡ Se mantiene el servicio de atención telefónica por las tardes para las llamadas con consultas complejas y las llamadas para modificar el resultado de la propuesta de autoliquidación, dada la buena acogida que ha tenido en las dos últimas campañas.

≡ Un equipo de 25 técnicos, que durante la campaña trabajará elaborando declaraciones de renta de la modalidad mecanizada, atenderá las llamadas telefónicas durante la primera semana de la campaña, antes de que comience la renta mecanizada.

EK\CV GAO-I-2024-02508

≡ Teknikarien kopurua handituko da, 30 langile gehiagorekin. Errenta kanpainaz arduratzen den taldean parte hartu ondoren, teknikari horiek kanpainatik ondorioztatzen diren zereginetan arituko dira 3 hilabetez.

— Informazio fiskala (Administrazioak zergadunen esku jartzen dituen datu fiskalak, haiek kontsultatu eta aitorpenak egiteko programetara deskargatu ahal izateko, ondoren Internet bidez aurkezteko):

≡ Urteko eredu informatiboetan aitortzen diren datu esanguratsu berriak sartuko dira.

≡ Atzerrian kokatutako diru birtualari (kriptodiruari) buruzko 721 ereduan aitortutako datuak gehituko dira.

≡ Oinarrizko ikerketarako mezenasgoari egindako dohaintzak gehituko dira, lehen aldiz % 35ean kengarriak.

— Errentako autolikidazio proposamenak:

≡ Hobekuntzak sartuko dira errentako autolikidazio proposamena prestatzeko hautagaiak aukeratzeko prozesuan.

≡ Kasu jakin batzuetan, errentako bigarren autolikidazio proposamen bat prestatuko da, lehenengoak akatsak dituela erreparatzen bada.

≡ Aukera emango da ordaintzeko emaitzarekin onartutako proposamenak kanpaina osoan zehar baliogabetu ahal izatea, betiere zorra ordaindu ez bada.

≡ Aukera emango da emaitza aldatuta onartu nahi diren proposamenak Departamentuko Herritarren Arretarako Bulegoetan ere onartu daitezen.

— Errenta mekanizatua:

≡ Ahalbidetuko da kanpainaren azken egunean ere hitzorduak erreserbatu ahal izatea aitorpena egun horretan aurkezteko.

≡ Aitorpen modalitate hau zein kasutan ezingo den erabili eguneratuko da.

≡ Hobekuntzak sartuko dira modalitate honetarako hitzorduak erreserbatzeko aplikazioan.

— Errenta, ondarea eta fortuna handien elkartasun zerga internet bidezko modalitatean:

≡ Aitorpenak Internet bidez nola aurkezten diren azaltzeko bideotutorialak eguneratzea.

≡ Errenta aitorpenarekin lotutako frogagiriak Internet bidez aurkezteko bideotutorial berria.

* Sozietateen gaineko zergari dagokionez, zerga informazioan eskainitako datuaren kalitatea hobetzen jarraitzeaz gain (Zergabidea plataformara inporta daiteke), eragiketa lotuen aitorpenera datuak inportatzeko aukera ezarri da.

Datuaren kalitateari eta hobekuntzari dagokienez, bizilekuak modu tratagarri eta zalantzagabean identifikatzen jarraitzeaz gain, zentsuaren arazketa egitea eta Gipuzkoan egiten diren jarduera ekonomikoak identifikatzea izango dira arreta gunea.

Jardueraren helbidea ezinbesteko elementua da zergadunen analisia eta kontrola egiteko, aukera ematen baitu jarduera non egiten den xehetasunez ezagutzeko.

Halaber, Gipuzkoako herrietan garatzen diren jardueren georreferentziazioak aukera emango du analisi espaziala mapa bisoreekin egiteko, eta horrek hainbat datu emango dizkie erabiltzaile mota desberdinei.

Gipuzkoako Foru Ogasunak laguntza, prebentzioa eta kontrol tributarioa gauzatzeko duen informazioaren oinarria da zentsua.

Gipuzkoan zerga betebeharrak dituzten sozietateak (merkataritzakoak zein bestelakoak) asko direnez, beharrezkoa da zentsua kontrolatzeko sistema desberdinak izatea, 036 eredua behar bezala betetzeak dakartzan zerga betebehar formalak modu egokian bete daitezen.

≡ Refuerzo del personal técnico con la incorporación de 30 técnicos que después de formar parte del equipo encargado de la campaña de renta, como en años anteriores, trabajarán durante 3 meses en tareas derivadas de la campaña.

— Información fiscal (datos fiscales que la administración pone a disposición de los contribuyentes para que puedan ser consultados y descargados a los programas de elaboración de declaraciones para su posterior presentación por internet):

≡ Se incluirán los nuevos datos relevantes que incorporen los modelos informativos anuales.

≡ Se añadirán los datos declarados en el modelo 721 sobre monedas virtuales (criptomonedas) situadas en el extranjero.

≡ Se añadirán los donativos destinados al mecenazgo para la investigación básica que, por primera vez, son deducibles al 35 %.

— Modalidad propuestas de autoliquidación de renta:

≡ Mejoras en la selección de candidatos para elaborar la propuesta de autoliquidación de renta.

≡ Elaboración, en determinados casos, de una segunda propuesta de autoliquidación de renta si se detecta que la primera contiene errores.

≡ Permitir que las propuestas aceptadas con resultado a ingresar puedan anularse durante toda la campaña siempre que no se haya satisfecho la deuda.

≡ Permitir que las aceptaciones de propuestas con modificaciones en el resultado puedan realizarse también en las Oficinas de Atención Ciudadana del Departamento.

— Modalidad mecanizada de renta:

≡ Permitir que el último día de la campaña también se puedan reservar citas para presentar ese día la declaración.

≡ Actualización de los criterios de exclusión para poder acogerse a esta modalidad.

≡ Mejoras en la aplicación que permite la reserva de citas para esta modalidad.

— Modalidad internet de renta, patrimonio y solidaridad de grandes fortunas:

≡ Actualización de los videotutoriales para explicar la presentación de las declaraciones por internet.

≡ Nuevo videotutorial sobre la presentación de justificantes por internet asociados a las declaraciones de renta.

* En cuanto al impuesto de sociedades, además de seguir mejorando la calidad del dato ofrecida en la información fiscal y que es importable a la elaboración en la plataforma Zergabidea, se ha implementado la posibilidad de importación de datos en la declaración de operaciones vinculadas.

En cuanto a la calidad del dato y su mejora, además de continuar identificando los domicilios de una manera tratable e inequívoca se va a centrar la atención en una depuración del censo, y la identificación de las actividades económicas en el territorio de Gipuzkoa.

El domicilio de la actividad es un elemento imprescindible para el análisis y control tributario de los contribuyentes, puesto que permitirá conocer con exactitud el lugar donde se desarrolla la actividad.

Asimismo, la georreferenciación de las actividades desarrolladas en los municipios de Gipuzkoa, posibilitará el análisis espacial mediante visores de mapas que proveerá de datos a diferentes tipos de usuarios.

El censo es la base de la información de Hacienda Foral de Gipuzkoa para la asistencia, la prevención y el control tributario.

La existencia de un gran número de sociedades (mercantiles u otras) con obligaciones tributarias en Gipuzkoa, hace preciso la existencia de diferentes sistemas de control del censo de forma que el cumplimiento de las obligaciones tributarias formales, derivadas de una correcta cumplimentación del modelo 036, se realice de un modo adecuado.

EK\CV GAO-I-2024-02508

Sozietate horien guztien artean, parte esanguratsu bat aktibo ez dauden sozietateak dira, edo jarduera urria edo nulua dute. Askotan, sozietate horiek bertan behera geratu dira entitate bat amaitu, azkendu eta desegiten denerako ordenamenduak exijitzen dituen egintza juridikoak gauzatu gabe.

Esandako horren ondorioz, zergapeko potentzialen kolektiboa jarduera ekonomikoak egiten dituena baino askoz handiagoa da.

Gainera, jarduketa horiek iruzurrak eragin ditzakete itxuraz aktibo ez dauden sozietate horiek erabilita. Azkenik, adierazi behar da aktibo ez dauden pertsona juridiko horiek ondasunen eta eskubideen benetako titulartasuna ezkuta dezaketela Espainian edo beste jurisdikzio batzuetan.

Horrelako jarduketetarako, ordenamendu juridiko-tributarioak IFZ errebokatzea eta Merkataritza Erregistrotik kanpo uztea aurreikusten du, besteak beste. Errebokazio horrek sozietatearen bizitza fiskalak ezin jarraitzea ekarriko du berekin.

Horrekin, behar bezala araztu nahi dira zentsuak, ekonomiaren eremuan benetan esku hartzen duten sozietateek bakarrik izan dezaten bizitza juridiko fiskal osoa.

Gainera, eragile ekonomikoen eragiketetan segurtasun juridikoa ematearren, errebokatutako IFZen zerrenda argitaratzen da Ogasunaren webgunean, informazio hori pertsona guztien eskura jarri eta egokien irizten duten eran joka dezaten.

* Arreta berezia eskainiko zaie erantzuteko denborei arlo hauetan:

— Kontsultei eta kexa eta iradokizunei erantzuteko batez besteko denbora.

— Itzulketaren batez besteko epea errenta eskaeretan (proposamenak, mekanizatuak eta telematikoak), sozietateetan eta BEZean (hilekoak eta urtekoak).

— Teknikarien arreta telefonikoa, dei kopuru osoaren aldean hartu ez diren deiak murrizteari dagokionez.

— Errekurtsoak epe barruan ebazteko izapideak.

* Transakzio finantzarioen gaineko zergaren aurkezpena eta kudeaketa txertatzea, baita tabakoaren marka fiskalei buruzko 515 eredu berriarena eta estatuan edo Europan araututako betebeharrengatik sortzen diren eredu berri guztiena ere.

c) Zerga-bilketa arloan, beste neurri batzuen artean, argitara emango da ordaindu gabeko zor eta zehapen handien zordunen urteko zerrenda.

5. Beste administrazioei informazioa lagatzea beren eginkizunak bete ditzaten.

Informazio trukearen barruan, nabarmendu behar da zerga informazioa gainerako administrazioei lagatzean oso lan garrantzitsu bat betetzen dela, gure ZFAOren 92. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Honako hauei lagatzen zaie informazioa: beste zerga administrazio batzuei, zerga betebeharrak beren eskumenen esparruan betetzen direla egiaztatzeko; administrazioei, gizarte segurantzaren sistemaren kargura jasotzen diren prestazioak lortu eta gozatzean dagoen iruzurraren aurka egiteko; eta administrazio publikoei, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak pertsegitzeko, bai eta funts publikoen eta Europar Batasunaren konturako diru-laguntzak lortu eta jasotzean egiten den iruzurrari aurre egiteko ere.

2024. urtean zehar, abian jarriko da, lehen aldiz, Gizarte Segurantzari langile autonomoen erregimen bereziaren kotizazio oinarri berria eratzen duten etekinei buruz informatzeko zerbitzua.

Informazioa beste administrazio publiko batzuei ere lagatzen zaie, haien eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean; hala ere,

En el conjunto de dichas sociedades existe una parte significativa constituida por sociedades inactivas o con escasa o nula actividad. En muchas ocasiones tales sociedades han sido abandonadas sin realizar los actos jurídicos que el ordenamiento prevé para los casos de terminación, extinción y disolución de dicha entidad.

Lo expuesto anteriormente, hace que haya que atender a un colectivo de potenciales obligados tributarios mucho mayor del que, efectivamente, realiza actividades económicas.

Además, estas actuaciones pueden dar lugar a fraudes utilizando estas sociedades de apariencia inactivas. Indicar por último que estas personas jurídicas inactivas pueden resultar potencialmente ocultadoras de la verdadera titularidad de bienes y derechos, en España o en otras jurisdicciones.

Para este tipo de actuaciones el ordenamiento jurídico-tributario prevé, entre otras consecuencias, la revocación del NIF que conllevará al cierre en el Registro Mercantil. Dicha revocación impedirá la continuidad de la vida fiscal de la sociedad.

Con ello se pretende realizar una adecuada depuración de los censos, de forma que solo aquellas sociedades que realmente intervengan en el ámbito económico mantengan su plena vida jurídico-fiscal.

Además, en aras de dar seguridad jurídica en las operaciones de los actores económicos, se publican en la página web de hacienda la relación de los NIFs revocados para que cualquier persona tenga acceso a dicha información, y actúe en consecuencia.

* Especial atención a los tiempos de respuesta en materia de:

— Tiempo medio de respuesta a consulta y quejas y sugerencias.

— Plazo medio de devolución en las solicitudes de renta (Propuestas, mecanizadas y telemáticas), Sociedades e IVA (mensuales y anuales).

— Atención telefónica de nivel técnico, minorando el n.º de llamadas no atendidas sobre el total.

— Tramitación de la resolución de recursos en plazo.

* Incorporación de la presentación y gestión del ITF, además del nuevo modelo 515 de IIEE, marcas fiscales de tabaco, todos los nuevos modelos que vayan surgiendo por obligaciones reguladas a nivel estatal o europeo.

c) Desde el área de la Recaudación tributaria, entre otras medidas, se procederá a la publicación anual del listado de deudores de importes significativos por deudas y sanciones pendientes de pago.

5. Cesión de información a otras Administraciones para el ejercicio de sus funciones.

Dentro del intercambio de información, hay que destacar la importante labor que se consigue en la cesión de la información tributaria a las demás Administraciones, según lo previsto en el artículo 92 de nuestra NFGT.

Se cede información a otras Administraciones tributarias para que puedan comprobar el cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias, a las Administraciones que actúan contra el fraude en la obtención y disfrute de las prestaciones a cargo del sistema de la seguridad social, a las Administraciones públicas para la persecución de los delitos contra la Hacienda Pública y la Seguridad Social, así como para la lucha contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos o de la Unión Europea.

Durante este 2024 se va a poner en marcha, por primera vez, el suministro de información a la Seguridad Social de los rendimientos que suponen la nueva base de cotización del régimen especial de trabajadores autónomos RETA.

También se cede la información a otras Administraciones públicas cuando es necesaria para el desarrollo de sus funcio-

aldez aurretik baimena eskatzen zaie, hala badagokio, lagatako datuekin lotuta dauden zergapekoei, eta, horrela, erraztu egiten dira herritarrei egin beharreko izapideak.

Informazioa lagatzeko sistemak era askotakoak dira, eta kasu bakoitzera egokituta daude.

Administrazioei aukera ematen zaie ziurtagiriak modu automatizatuan lortzeko, dagoeneko prestatuta dagoen datu multzoari buruzko informazioa eskatzeko, edo elkarreragingarritasuneko tresnak erabiltzeko.

2024an, elkarreragingarritasunaren erabilera sustatu nahi da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bultzada emango zaio Nisae nodoari. Nodo horren bitartez, praktikan antolatzen eta inplementatzen da paperezko ziurtagirien ordez egiten den datu-trukea, hala Euskal Administrazio Publikoen artekoa nola horien eta estatuko gainerako administrazioen artekoa –batez ere Estatuko Administrazio Orokorrarekin–, sinergiak batuta.

2024an ere, urte anitzeko proiektu bati ekingo zaio berriro, ziurtagiriak ematen dituzten sistemak optimizatu eta eguneratzeko. Proiektu hori atzeratu egin behar izan da, pandemiaren ondorioei aurre egiteko laguntzei buruz promulgatutako legeriatik eratorritako informazioaren lagapena egokitzeko beharrezkoak diren garapenak egiteko.

6. Zentsuak kontrolatzeko jarduketak.

a) Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroa eta Hileko Itzulketen Erregistroa kontrolatuko dira, balio erantsiaren gaineko zergan dauden iruzur sareak lehen fasean atzeman eta deuseztatzeko. Entitate taldeen erregistro berezirako sarbideen kontrolari dagokionez, komunikazioak, bajak, altak eta egiaztapen formalak begiratuko dira.

b) Bidaltzen diren identifikazio fiskaleko zenbakien kontrol prebentiboa egingo da, arriskuko egoerak atzemateko.

c) Egiaztatuko da zergadunek enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan egiten diren alta, aldaketa eta baja aitorpenetan komunikatutako datuak benetakoak direla eta, bereziki, zergapekoek aitortutako helbide fiskalak, baita jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoen helbide fiskalak ere.

d) Entitateei identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatuko zaie lurralde historikoan indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetako batean daudenean.

7. Garraiobideak kontrolatzeko jarduketak.

Kontrol jarduketak egingo dira estatu barruko eremutik zein Europar Batasuneko beste estatu batzuetatik datozen ibilgailuen eskualdaketetan, balio erantsiaren gaineko zergan, garraiobide jakin batzuen gaineko zerga berezian eta beste zerga batzuetan iruzurrik egon ez dadin. Kontrol jarduketak izango dira, halaber, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian eta beste zerga batzuetan ibilgailuak eskuratzeagatik onura fiskalak lortzen direnean.

8. Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiaren jarduketak.

Jarduketa hauek egingo dira:

a) Behin-behineko kautelazko neurriak hartuko dira, zerga zorren kobrantza ziurtatzeko, kudeaketa eta ikuskaritzako organoekin koordinatuta eta bilketa exekutiboko prozeduretan, beharrezkoak diren jarduketak bultzatuz informazioa lortzeko.

b) Jarduketak egingo dira iruzurtutako kuotak ziurtatzeko, Herri Ogasunaren aurkako delituetan eta isunetan.

c) Bermeak eratuko dira zorra kobratuko dela ziurtatzeko, batik bat gerorapenetan eta zatikapenetan, eta, kasua bada, baita zerga-bilketa prozeduretan eta konkurtso prozeduretan.

nes, previa autorización, en su caso, de los obligados tributarios a que se refieran los datos suministrados, simplificando así los trámites a los ciudadanos.

Los sistemas preparados para ceder la información son múltiples, adecuados a cada caso.

Se posibilita a las Administraciones a que obtengan certificados de forma automatizada, a que pidan información a la carta del conjunto de datos ya preparado o que se utilicen herramientas de interoperabilidad.

Durante 2024 se va a potenciar la utilización de la interoperabilidad, que en el caso del País Vasco con el impulso de Nisae que es el nodo encargado de articular e implementar en la práctica el intercambio de datos que sustituyen a los certificados en papel entre las Administraciones Públicas Vascas, y entre éstas y el resto de las administraciones del estado, especialmente, la Administración General del Estado aunando sinergias.

También en 2024, se retomará un proyecto plurianual que optimizará y actualizará los sistemas que emiten los certificados, que ha tenido que posponerse para efectuar los desarrollos precisos para adecuar la cesión de la información derivada de la legislación promulgada en relación con las ayudas para hacer frente a los efectos derivados de la pandemia.

6. Actuaciones de control censal.

a) Control del Registro de Operadores Intracomunitarios (ROI) y del Registro de Devoluciones Mensuales (REDEME) con el objeto de detectar y erradicar en fase inicial las tramas de fraude en el Impuesto sobre el Valor Añadido. En el Control de accesos al REGE, se verificarán las comunicaciones, altas, bajas y comprobaciones formales.

b) Control preventivo a la remisión del NIF que permita detectar situaciones de riesgo.

c) Comprobación de la veracidad de los datos comunicados por los contribuyentes en las declaraciones de alta, modificación y baja en el censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores, y en especial, de los domicilios fiscales declarados por los obligados tributarios, inclusive los domicilios fiscales de las personas físicas sin actividad económica.

d) Revocación del número de identificación fiscal de las entidades que se encuentren en alguno de los supuestos establecidos por la normativa vigente en el Territorio Histórico.

7. Actuaciones control sobre medios de transporte.

Actuaciones de control de las transmisiones de vehículos, procedentes tanto del ámbito interno como de otros Estados de la Unión Europea, tendentes a evitar la comisión de fraude en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en otros tributos. Actuaciones de control de la obtención de beneficios fiscales derivados de la adquisición de vehículos en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en otros tributos.

8. Actuaciones de la Subdirección General de Recaudación.

Se realizarán las siguientes actuaciones:

a) Adopción de medidas cautelares de carácter provisional para asegurar el cobro de las deudas tributarias, en coordinación con los órganos de gestión e inspección y en los procedimientos de recaudación ejecutiva, promoviendo las actuaciones de obtención de información necesarias para las mismas.

b) Actuaciones de aseguramiento de las cuotas defraudadas en delitos contra la Hacienda Pública y multas.

c) Constitución de garantías para asegurar el cobro de la deuda, sobre todo en lo referido a la concesión de aplazamientos-fraccionamientos; y, en su caso, en el procedimiento de recaudación y en procedimientos concursales.

EK\CV GAO-I-2024-02508

d) Kobrantza eteteko aurkezten diren bermeak aztertuko dira erreklamazioak ebazten diren bitartean, hala esparru ekonomiko-administratiboan nola administrazioarekiko auzibidean.

e) Aplikazio berriak amaitu eta ezarriko dira, eratutako bermeak eta hartutako kautelazko neurriak kudeatu eta kontrolatzeko.

f) Konkurtso prozeduren esparruan, zerga obligazioak betetzeko eraren segimendua egingo da, departamentuko zerbitzuak jakinaren gainean jarriz eta zerga ondorioak dituzten beste jarduketa batzuk eginez.

9. Jarduera jakin batzuen borondatezko erregularizazioa sustatzeko jarduketak.

Zergapekoen kopuru handiagatik justifikatuta dauden zenbait sektoretan, beharrezkoa da jarduketa disuasorioak egitea, ziurtapen ekintzak gauzatu edo informazioa lortzekoak, zerga egoerak borondatez betetzea sustatzeko. Behar den kasuetan, jarduketa horien ondorioz egiaztapen jarduketak hasiko dira, zergadunak dituen zerga obligazioak betetzen ez dituenean.

10. Beste jarduketa batzuk.

Informazio eta laguntza zerbitzuak emango dira, zerga obligazioak borondatez betetzea sustatzeko.

Jarduketa mota honen barruan kokatzen dira Administrazioa aurrez lotesteko prozedurak, zeinen xedea baita gure zerga zuzenbideari segurtasun juridikoa eta ziurtasuna ematea administrazioaren jarduketak operadore ekonomiko guztientzat eskaintzen dituen bermeak nahikoak izan daitezen egonkortasunari, konfiantzari eta aurreikusgarritasunari dagokienez. Adibide gisa: amortizazio planen baimenak, softwarearen homologazioa, aurretiazko balorazio erabakien izapidetzea, aurretiazko administrazio loturako txostenak eta prozedurak, kontsulta lotesleak eta zergadunen beste eskaera posible batzuk.

Departamentuaren barruko prestakuntza planari dagokionez, zerga zuzenbideak agintzen duen etengabeko prestakuntza bideratzeaz gain, ahalegin handia egingo da praktiketan hasiko diren funtzionario taldeek berariazko prestakuntza jaso dezaten. Horretaz gain, ikastaro espezifikoak ere antolatuko dira garrantzi bereziko gai sektorialak jorratzeko, hala nola auditoretza informatikoa, nazioarteko fiskalitatea, Herri Ogasunaren aurkako delituak, eta ekonomia digitalaren tributazioa.

C. ERREGULAZIO ETA KOBRANTZA JARDUKETAK

Atal honetan sartzen dira kudeaketa eta ikuskaritza organoek zergak aplikatzeko prozeduren berruan zergapekoen egoera fiskala egiaztatzeko, ikertzeko eta, beharrezkoa bada, erregularizatzeko egiten dituzten jarduketak, bai eta zerga-bilketako organoek zergapekoek borondatez ordaintzeko epean zein epe exekutiboan ordain dezatela lortzeko egiten dituztenak ere.

Erregularizazio jarduketen xedea da iruzurra kuantifikatzea behin hura egin denean, eta zergaduna iruzurrezko jokabidetik aldentzeko balio dute. Hala ere, hein batean, foru ogasunetako organoek egiaztatuko dituzten zergapekoak egoki aukeratzearen baitan dago jarduketa horien arrakasta. Horiek horrela, askotan, Administrazioak informazioa lortzeko jarduketak egitean lortzen duen eta zergetarako garrantzitsua den informazioaren kalitatearen eta hedaduraren ondorio dira jarduketa horiek. Era berean, kudeaketa eta ikuskapen organoek agerian jarritako zerga zorraren kobrantza, askotan, baldintzatuta dago zerga-bilketako organoek ordaintzera behartuta dauden guztiei buruz duen informazioak egiazkoa eta osoa izan behar duelako, izan horiek zordun nagusiak izan haiekin erlazionatuta dauden erantzule solidario eta subsidiarioak. Ondorioz, erabakigarria da zer-

d) Análisis de las garantías ofrecidas para abordar la suspensión de su cobro en tanto se resuelvan las reclamaciones presentadas, tanto en el ámbito económico-administrativo como en el contencioso-administrativo.

e) Finalización e implantación de nuevas aplicaciones para la gestión y control tanto de las garantías constituidas como de las medidas cautelares adoptadas.

f) Seguimiento del cumplimiento de obligaciones tributarias en el ámbito de los procedimientos concursales con comunicación a los correspondientes Servicios del Departamento y realización de otras actuaciones con trascendencia tributaria.

9. Actuaciones que fomenten la regularización voluntaria de determinadas actividades.

En determinados sectores, en los que lo justifique el elevado número de obligados tributarios se hace necesaria la realización de actuaciones disuasorias de verificación o de obtención de información, a fin de fomentar el cumplimiento voluntario de las situaciones tributarias. Del resultado de estas actuaciones se derivarán, en su caso, el inicio de actuaciones de comprobación cuando el contribuyente incumpla con sus obligaciones fiscales.

10. Otras actuaciones a realizar.

Prestación de servicios de información y asistencia dirigidos a promover el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

Dentro de esta categoría de actuaciones se enmarca el empleo de los procedimientos de vinculación administrativa previa con el fin de establecer un clima de seguridad jurídica y de certeza de nuestro derecho tributario que dé las suficientes garantías de estabilidad, confianza y previsibilidad de las consecuencias tributarias de su actuación para todos los operadores económicos. A título enunciativo: las autorizaciones de planes de amortización, la homologación de software, la tramitación de los acuerdos previos de valoración (APAs), los informes y procedimientos de vinculación administrativa previa, las consultas vinculantes y otras posibles solicitudes de los contribuyentes.

En el plan de formación interna, además de la formación continua que exige el derecho tributario, hay que destacar el esfuerzo importante que se va a realizar dirigido a la formación específica de los distintos grupos de funcionarios en prácticas que se van a incorporar. Adicionalmente señalar la formación mediante cursos específicos en materias sectoriales de especial importancia: auditoría informática, fiscalidad internacional, delitos contra la Hacienda Pública, así como sobre la tributación de la economía digital.

C. ACTUACIONES DE REGULARIZACIÓN Y COBRO

En este apartado se relacionan las actuaciones encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación tributaria de los obligados tributarios objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos desarrollados por los órganos de gestión e inspección, así como las actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación para obtener el pago por los obligados tributarios, tanto en período voluntario como en período ejecutivo.

Las actuaciones de regularización tienen por objeto cuantificar el fraude una vez cometido y sirven para persuadir la no comisión de conductas fraudulentas. No obstante, el éxito de estas actuaciones depende en gran medida de la adecuada selección de los obligados tributarios que serán objeto de comprobación por los órganos de la Hacienda Foral, por lo que estas actuaciones son consecuencia muchas veces de la calidad y extensión de la información con trascendencia tributaria obtenida por la Administración en el desarrollo de las actuaciones de obtención de información. En el mismo sentido, el cobro de la deuda tributaria puesta de manifiesto por los órganos de gestión e inspección depende en muchas ocasiones de que los órganos de recaudación dispongan de una información veraz y completa de todos los obligados al pago, tanto de los deudores principales como de los res-

EK\CV GAO-I-2024-02508

ga administrazioko organo guztiek elkarlan hertsian aritzea beren helburuak lortzen dituztela bermatzeko.

Ikuskapen jarduketen efizientzia handitzearren, orokortu egingo da egiaztapen eta analisi teknikak erabiltzea zergapekoek beren jarduera ekonomikoak osorik edo partez kudeatzeko erabiltzen dituzten sistema eta ekipo informatikoetan.

Auditoretza informatikoko kontrol horiek egitean ebidentziak lortu nahi dira, ikuskatzaileek iritzi oinarriduna izan dezaten kontabilitateko egoera orrien eta zerga aitorpenen oinarrian dauden sistema informatikoetan erregistratuta edo idatzita dauden eragiketa ekonomikoen zuzentasun eta zehaztasunari buruz. Horretarako, mota guztietako prozesuak eta kontrolak egingo dituzte, tresna informatiko egokiez baliatuta eta Europar Batasunak gomendatutako estandarrak eta lan metodologia erabilita.

Anomalia fiskalak modu eraginkorragoan aztertu eta detektatzeko aukera emango diguten tresna teknologikoak hobetzeaz gainera, aurten ere kontrol jarduketak indartuko dira zergapekoek jarduerak edo ustiapenak egiteko erabiltzen dituzten bulego, finka, negozio-lokal eta gainerako establezimendu edo lekuetan. Zenbait kasutan jarduketa horiek gure inguruko beste tributu administrazio batzuekin koordinatuta egingo dira.

Erregularizazio ekintzen ondorioz ikusten bada Herri Ogasunaren aurkako delituak egin izanaren zantzuak daudela, Foru Ogasunek erreduntasunaren testigantza bidaliko dio jurisdikzio eskudunari, edo txostena helaraziko dio Ministerio Fiskalari, azken horrek, egoki iritziz gero, salaketa aurkez dezan. Era berean, zerga-bilketako organoek iruzurrezko jokabideak ikertuko dituzte, ondasunak edo eskubideak ezkutatuz zerga zorrak ez ordaintzea helburu dutenean. Ikerketa horien bidez detektatu ahal izango da, gainera, ea arlo penalean pertsegi daitekeen jokabiderik dagoen, eta halakoen kasuan ere, salaketa aurkeztuko da.

Horrez gain, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak bere gain hartuko ditu Kudeaketako Zuzendariordetzak identifikatu dituen eta egin ezin dituen espedienteak ere, balizko arriskua gertatzeko aukerarengatik eta balizko iruzurraren motarengatik Ikuskaritzako Zuzendariordetzak parte hartzea bidezkoa eta egokia denean.

Jarraian azalduko diren lerroez gain, egiaztapen jarduketak hasiko dira, hala behar denean, Egiaztapen Plan honetako A) atalean aipatzen diren ziurtapen espedienteetatik edo informazioa lortzera bideratutakoetatik ateratzen denaren arabera.

1. Enpresa taldeen kontrola.

2024an, kontrol espezifikoak egingo dira enpresa talde handietan arrisku gehienarekin ager daitezkeen gorabehera fiskalen gainean.

Horrela, nazioartekotutako enpresa taldeek zergak saihesteko egiten dituzten praktikak pertsegituko dira, eta, bereziki, zergak saihesteko helburua besterik ez duten sozietate egitura erabat artifizialak sortzea. Horretarako, beste informazio iturri batzuen artean, aztergai hartuko dira enpresak berregituratzeko eragiketak eta entitateen balantzeak osatzeko era.

2. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek aitortutako etekinen kontrol integrala, batez ere zirkunstantzia hauetakoren bat detektatzen denean.

a) Aitortzen diren etekinak jarduera sektorean edo negozio ereduan izan ohi den batezbestekoa baino askoz txikiagoak izatea. Besteak beste, gastu kengarriak egiaztatuko dira, baita aitortu ez diren diru-sarrerak ere.

ponsables solidarios y subsidiarios relacionados con los primeros. En consecuencia, la estrecha colaboración entre los distintos órganos de la Administración tributaria es un elemento decisivo para garantizar la consecución de sus objetivos.

Con el objeto de incrementar la eficiencia de las comprobaciones inspectoras, se va a generalizar la utilización de técnicas de verificación y análisis de los sistemas y equipos informáticos de los obligados tributarios mediante los que se lleva a cabo, total o parcialmente, la gestión de sus actividades económicas.

El objeto de la realización de estos controles de auditoría informática es obtener las evidencias necesarias que permitan al personal inspector formarse una opinión fundada sobre la integridad y exactitud del registro o anotación de las operaciones económicas en los sistemas informáticos de los que derivan los estados contables y las declaraciones tributarias, mediante la realización de todo tipo de procesos y controles con la ayuda de las herramientas informáticas apropiadas y conforme a los estándares y metodología de trabajo recomendados en la Unión Europea.

Además de esta mejora de las herramientas tecnológicas que nos permiten analizar y detectar de una forma más eficiente las anomalías fiscales, se va a seguir potenciando la realización de actuaciones de control en las oficinas, fincas, locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrollen por los obligados tributarios actividades o explotaciones sometidas a gravamen. En algunos supuestos, estas actuaciones se podrán realizar de forma coordinada con otras Administraciones tributarias de nuestro entorno.

En los casos en que en la realización de las actuaciones de regularización se aprecien indicios de la comisión de delitos contra la Hacienda Pública, la Hacienda Foral pasará el tanto de culpa a la jurisdicción competente o remitirá el expediente al Ministerio Fiscal para que éste presente, si lo considera oportuno, la correspondiente denuncia. Igualmente, los órganos de recaudación investigarán las conductas fraudulentas tendentes a la ocultación de los bienes o derechos para evitar el pago de las deudas tributarias. En estas investigaciones también es posible la detección de conductas penalmente perseguibles que son asimismo objeto de la correspondiente denuncia.

Adicionalmente a lo anterior, también asumirá la Subdirección de Inspección, aquellos expedientes que hayan sido identificados por la Subdirección de Gestión y que no pueda realizarlos, pero que por oportunidad del supuesto riesgo y la tipología del potencial fraude que se haya podido acometer sea procedente y adecuada la participación de la Subdirección de Inspección.

Además de las líneas que se exponen a continuación, se iniciaran actuaciones de comprobación cuando así proceda en función de lo que resulte de los expedientes de verificación o de obtención de información previstos en el apartado A) de este Plan de Comprobación.

1. Control de los grupos empresariales.

En el año 2024, se van a realizar controles específicos de las incidencias fiscales que con mayor riesgo se pueden manifestar en los grandes grupos empresariales.

En esta línea se perseguirán las prácticas de elusión fiscal realizadas por grupos empresariales internacionalizados, así como mediante la creación de estructuras societarias que resulten totalmente artificiosas y cuyo único objetivo sea, precisamente, la elusión fiscal. Para ello, entre otras fuentes de información, se analizarán las operaciones de reestructuración empresarial y la composición del balance de las entidades.

2. Control integral de los rendimientos declarados por los obligados tributarios que realizan actividades económicas, fundamentalmente cuando se detecte alguna de las siguientes circunstancias.

a) Que se declaren rendimientos anormalmente bajos o inferiores a la media del sector de actividad o del modelo de negocio. Entre otros, comprobación de gastos deducibles así como de ingresos no declarados.

b) Irregulartasunak detektatzea kreditu txartelen, eskudiruaren edo konturako diru sarreren bidez kobratzeko kudeaketa sistemari atxikita dauden gailuen titularretan.

c) Zantzuak egotea eduki ekonomikorik gabeko fakturak egoteari buruz edo iruzur egiteko sare organizatuetan parte hartzeari buruz, batez ere balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan.

d) Balio erantsi handiko sektoreetan jarduten duten eragileak izatea, edo, bestela, eragiketen zati handi bat eskudirutan kobratzeagatik edo eragiketak azken kontsumitzaileentzat egiteagatik arrisku fiskal handikoak diren sektoreetan jarduten duten eragileak izatea.

e) Pertsona fisikoen zerbitzu oso pertsonalak fakturatzeko bitarteko sozietateak erabili izana kontrolatzea.

3. Ondare sozietateek eta enpresa mikro, txiki eta ertainek zuzen tributatu dutela egiaztatzea, batez ere izaera hori izateko beharkizunak betetzen direla ziurtatuz.

4. Zergapekoen kontrola, zergen autolikidazioak aurkezten ez dituztenean horretara behartuta egon arren, edo hainbat aitorpen edo zergalditan etengabe itzulketak eskatu edo konpentsatzeko zenbatekoak aitortu dituztenean.

5. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko eta ordaintzeko betebeharra duten zergapekoen gaineko kontrola.

6. Autolikidazioen kontrola, haietan onura fiskalak aitortzen direnean, sorrerako ekitaldian bertan aplikatzekoak izan ala ez, edo aurreko aldietan egiaztatutako kenkariak edo bestelako pizgarri fiskalak finkatzeko baldintzak betetzeko epeak amaitzen direnean.

7. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien ondorioetarako erregistratuta dauden fabrikak, gordailu fiskalak, biltegi fiskalak eta establezimenduak kontrolatzea.

8. Ofiziozko behin-behineko likidazioak: aitorpena egiten ez duten zergadunak dira, autolikidazioak aurkezteko gure errekerimenduei erantzuten ez dietenak, eta, beraz, ofiziozko behin-behineko likidazioak proposatzen eta igortzen dira, Ogasunean dauden datuekin.

9. Eragiketa bolumenagatik zerga administrazio batean baino gehiagotan –lurralde erkidean edo foru lurraldean– tributatzen duten entitateek aitortutako tributazio portzentajeak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.

Batetik, egiaztatuko da zergapekoek zuzen aplikatu dituztela Ekonomia Itunean ezarrita dauden konexio puntuak, eta, bestetik, kontrolatuko da konexio puntu horiek Arbitraje Batzordearen azken ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan finkatutako interpretazio irizpideei jarraituz aplikatu direla.

10. Zerga Administrazioak duen informazioarekin alderatuta, beren aitorpenetan inkoherentzia nabarmenak ageri dituzten zergapekoak.

Bereziki:

a) PFEZean:

— Lan etekinetan % 100etik beherako integrazio portzentajeak egiaztatzea (bonusa, stck option-ak...).

— Familia unitate batean baino gehiagotan aldi berean aplikatutako kenkari familiar eta pertsonalak egiaztatzea.

— Entitateak desegin eta likidatzean pertsona fisikoak diren bazkideen tributazioa zuzena dela egiaztatzea.

— Ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatu den kenkaria egiaztatzea jabetzan etxebizitza bat baino gehiago dauden kasuetan.

— Maileguen amortizazio aurreratua egiaztatzea, zenbateko txikiko lan-etekinen kasuan.

b) Que se detecten irregularidades en los titulares de dispositivos adheridos al sistema de gestión de cobro a través de tarjetas de crédito, por cobros en efectivo o por ingresos en cuenta.

c) Que existan indicios de la existencia de facturas sin contenido económico o de la participación en tramas de fraude organizado en relación especialmente con el Impuesto sobre el Valor Añadido.

d) Que se trate de operadores que realizan actividades en sectores de alto valor añadido y de elevado riesgo fiscal o en los que un alto porcentaje del cobro de sus operaciones se realice en efectivo o se destine a consumidores finales.

e) Actuaciones de control de la interposición de sociedades a través de las cuales se facturen servicios personalísimos de personas físicas.

3. Comprobación de la correcta tributación de las sociedades patrimoniales y de micro, pequeña y medianas empresas, en particular mediante la verificación del cumplimiento de los requisitos para tener tal condición.

4. Control de los obligados tributarios que no hubieran presentado autoliquidación de los impuestos correspondientes teniendo obligación de ello, que hubieran solicitado devoluciones de impuestos o acreditado cantidades a compensar de forma reiterada durante varios periodos impositivos o de declaración.

5. Control sobre los obligados a practicar e ingresar retenciones ingresos a cuenta.

6. Control de las autoliquidaciones en las que se acrediten beneficios fiscales, sean o no objeto de aplicación en el propio ejercicio de generación o en las que venzan los plazos para el cumplimiento de los requisitos de consolidación de deducciones u otros incentivos fiscales acreditados en periodos anteriores.

7. Control de fábricas, depósitos fiscales, almacenes fiscales o establecimientos registrados a los efectos de los Impuestos especiales de Fabricación.

8. Liquidaciones provisionales de oficio: se trata de contribuyentes no declarantes que no atienden a nuestros requerimientos de presentación de autoliquidaciones y, por tanto, se proponen y giran liquidaciones provisionales de oficio con los datos obrantes en Hacienda.

9. Comprobación de la correcta aplicación de los porcentajes de tributación declarados por las entidades que tributan en volumen de operaciones a más de una Administración tributaria, sea de territorio común o foral.

Se verificará, por un lado, la correcta aplicación por las y los obligados tributarios de los puntos de conexión establecidos en el Concierto Económico y, en particular, su aplicación de acuerdo con los criterios interpretativos fijados en las más recientes resoluciones de la Junta Arbitral y sentencias del Tribunal Supremo.

10. Obligados tributarios que presenten incoherencias relevantes en sus declaraciones según la información de que dispone la Administración tributaria.

En especial:

a) En el IRPF:

— Comprobar porcentajes de integración inferiores al 100 % en rendimientos de trabajo (bonus, stock options...).

— Comprobar deducciones familiares y personales aplicadas simultáneamente en más de una unidad familiar.

— Comprobación de la correcta tributación de los socios personas físicas en la disolución y liquidación de entidades.

— Comprobación de la aplicación de la deducción por adquisición de vivienda habitual en los casos de varias viviendas en propiedad.

— Comprobación amortización anticipada de préstamos en caso de rendimientos de trabajo de poco importe.

EK\CV GAO-I-2024-02508

— 600.000 eurotik gorako diru-sarreretan zenbatespen sinplifikatuaren metodoa aplikatu dela egiaztatzea.

— Jarduera ekonomikoetako sarrerak eta gastuak.

— Atxikipenak: jarduera ekonomikoetako atxikipenak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.

— Ez-egoiliarrak: higiezinen errentamenduetan tributazioa eta errenten egozpena zuzen aplikatu direla egiaztatzea.

b) Sozietate zergan:

— Entitateak desegitean eta likidatzean behar bezala tributatu dela egiaztatzea.

— Talde fiskalak eta aitortutako zerga oinarri negatiboak egiaztatzea.

— Berregituratze eragiketen efektuak egiaztatzea.

c) BEZean:

— BEZaren autolikidazioen gainean egiaztapenak egitea, zergadunak berak edo hirugarrenek beren betebehar formalak betez bidalitako informazioan oinarrituta (BIHren erregistroak, TBAI, eredu informatiboak).

— Kontrol hori indartzea BEZaren aldizkako aitorpenik aurkezten ez duten zergadunek egindako erosketetan, Europar Batasunaren barruko erosketei dagokien BEZaren likidazioak dirusarrera bat dakarrenean Foru Ogasunarentzat.

— Autolikidazioetan behin eta berriz konpentsatzeko zenbatekoak uzten dituzten zergadunak kontrolatzea.

11. Ondasunak eta eskubideak aztertzea, baldin eta horiek ez badatoz bat zerga administrazioei aitortu zaizkienekin edo zergaldian lortutako diru-sarrerekin. Besteak beste, nazioarteko informazioa atzerriko ondasun eta eskubideen 720 ereduan adierazitakoarekin trukatzean ikusten diren inkongruentziak.

12. Higiezinen negozioei dagokien tributazioaren kontrol integrala, eskualdaketetatik eta errentamenduetatik datorrena barne.

Zenbait kasutan, jarduketa lerro honek eskatzen du ordainarazteko eskumenak gainerako administrazioekin koordinatzea eta zergadunen aurkako prozeduretan erabateko erregularizazioaren printzipioa aplikatzea.

13. Bestelako erregularizazio eta kobrantza jarduketak BEZean.

a) Dagokion erregimenean behar bezala tributatu dela kontrolatzea, erregimen sinplifikatutik kanpo utzi behar den kolektiboa bereziki.

b) Kreditu kobraezinengatik zuzendutako zerga oinarriak egiaztatzea. 952 eta 95B ereduak.

14. Bestelako erregularizazio eta kobrantza jarduketak eskualdaketen gaineko zergan.

a) Autolikidazioen kontrol orokorra, aplikagarri ez den salbuespen edo murriztapen bat aitortzen duten autolikidazioei arreta berezia eskainiz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen arabera sinatutako oinordetza ituneі buruzko autolikidazioak ere barne.

b) Ohiko etxebizitzaren erosketagatik ondare eskualdaketen gaineko zergan aplikatutako tasa murriztua eta erosketa horretarako emandako hipoteka maileguaren salbuespena behar bezala aplikatu direla begiratzea.

c) Kontrol berezia irabazpidezko sozietateen desegiteetan eta gehiegizko adjudikazioetan, eragiketa edozein dela ere.

d) Sozietateen desegiteak eta kapital murriztapenak kontrolatzea, eta kooperatibek salbuespenak eta hobariak nola aplikatu dituzten begiratzea.

e) Balio egiaztapenak.

— Comprobación de la aplicación del método de estimación simplificada con ingresos superiores a 600.000 euros.

— Ingresos y gastos en Actividades Económicas.

— Retenciones: comprobar la correcta aplicación de las retenciones en actividades económicas.

— No residentes: comprobar la correcta tributación en arrendamientos e imputación de rentas de inmuebles.

b) En el IS:

— Comprobación de la correcta tributación en la disolución y liquidación de entidades.

— Comprobación de grupos fiscales y las bases imponibles negativas declaradas.

— Comprobación de efectos de operaciones de reestructuración.

c) En el IVA:

— Comprobaciones realizadas sobre autoliquidaciones de IVA en base a la información remitida por el propio contribuyente o terceros en cumplimiento de sus obligaciones formales (registros del SII, TBAI, modelos informativos).

— Fortalecer este control en las compras efectuadas por contribuyentes que no presentan declaraciones periódicas de IVA en los que la liquidación del IVA correspondiente a las compras intracomunitarias implica un ingreso en la Hacienda Foral.

— Control sobre contribuyentes que recurrentemente dejan a compensar cantidades en sus autoliquidaciones.

11. Análisis de los bienes y derechos cuya tenencia no se corresponda con los declarados a las Administraciones tributarias o con los ingresos obtenidos en el período impositivo. Entre otros, las incongruencias que se deriven del intercambio de información internacional con lo declarado en el modelo 720 de bienes y derechos en el extranjero.

12. Control integral de la tributación correspondiente a los negocios inmobiliarios, incluyendo la derivada de transmisiones y arrendamientos.

En algunos casos, esta línea requiere de la coordinación de competencias exaccionadoras con el resto de las administraciones y de la aplicación del principio de regularización íntegra en los procedimientos frente a contribuyentes.

13. Otras actuaciones de regularización y cobro en el IVA.

a) Control de la correcta tributación en el régimen correspondiente incidiendo en el colectivo a excluir del régimen simplificado.

b) Comprobación de las rectificaciones de bases imponibles por créditos incobrables. Modelos 952 y 95B.

14. Otras actuaciones de regularización y cobro en el ITP.

a) Control general de las autoliquidaciones con especial atención a aquellas en las que se declare una exención o reducción que pueda no resultar aplicable, así como autoliquidaciones referidas a pactos sucesorios suscritos de conformidad con la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

b) Correcta aplicación del tipo reducido en TP por la adquisición de vivienda habitual, así como de la exención del préstamo hipotecario otorgado para dicha adquisición.

c) Control especial de las disoluciones de gananciales y excesos de adjudicación producidos en cualquier tipo de operación.

d) Control de las disoluciones y reducciones de capital de sociedades y la aplicación de exenciones y bonificaciones por parte de cooperativas.

e) Comprobaciones de valor.

EK\CV GAO-I-2024-02508

15. Zerga Bereziak eta beste ingurumen zerga batzuk.

a) Gainerako administrazioek BIH sisteman emandako informazioa aztertuko da, Ekonomia Itunaren lotura puntuak behar bezala betetzen ez dituzten ez-aitortzaileak detektatzeko, batez ere elektrizitatearen gaineko zerga bereziari dagokionez.

b) Elektrizitatea merkaturatzen dutenek beren bezeroei salbuespenak eta murriztapenak behar bezala aplikatzen dizkieten aztertuko da, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren likidazioan 2021eko urritik eman behar duten informaziotik abiatuta.

c) Itzulketa eskaerak egiaztatuko dira.

d) Datu gurutzaketak egingo dira JEZaren eta gasolio profesionalari dagozkion itzulketa eskaeren artean.

e) Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga: Aurkezten diren likidazioak egiaztatu eta zerga horietan nahitaezkoa den kontabilitate informazioa begiratzea.

16. Erregularizazio jarduketak udal zergetan: OHZ eta JEZa.

a) Titulartasunak eguneratzea honako hauek aintzat hartuta: salerosketen eskriturak, katastroko datuak (obra berrien, banaketa horizontalen, segregazioen eta elkarketen eskrituren araberakoak), BEZari lotutako salerosketak, partzelarioen kartografia, eta udalerrien aireko argazkiak.

b) Ondasunak baloratzea administrazio, departamentu, atal edota subjektu pasiboentzat.

c) U-4 inprimakiak (obra berriak) eta haiei buruzko dokumentazioa kontrolatu eta egiaztatzea, finka berriei alta emateko.

d) Enpresa taldeen negozio zifraren zenbateko garbia egiaztatzea, baita haien kontrola Gipuzkoatik kanpoko pertsona fisikoek eta subjektu pasiboek dutenean ere (842 ereduaren bidez aitortuak).

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen administrazio kontratuen adjudikazioak egiaztatzea, JEZaren epigrafeak eta esparruak erregularizatzeko.

f) Higiezinen sustatzaileek saldu eta aitortutako metro karratuak egiaztatzea.

g) Udalek izapidetutako ikuskapen aktak tramitatzea.

17. Erregularizazio eta kobrantza jarduketak zerga-bilketa arloan.

Zerga-bilketa arloan, egin beharreko jarduketen helburua ez da soilik zorra kobratzea edo zerga iruzurraren aurka eginez kobrantza ziurtatuko duten ondasun eta eskubideak aurkitzea. Bilketa fasean iruzur fiskala egiteko asmoa uxatzea ere bilatzen dute jarduketek, eta ordainketa espontaneoa bultzatu behar dute, nahiz eta ordainketa hori berehala ez egin. Aurrekoa kontuan hartuta, erregularizazio eta kobrantza jarduketa hauek egingo dira:

a) Zerga-bilketa fasean:

— Enbargatu egingo dira berehala eta epe ertainean gauzatzekoak diren ondasun eta eskubideak, zorraren kobrantza ziurtatzeko.

— Errekerimenduak egingo dira, banaka zein kolektiboak, enbargoak egiteko (ondasun eta eskubideen zerrendak, kontuak, jardueren txostenak, notarioekiko hitzarmen bidezko eskriturak, Europar Batasuneko beste estatu batzuekiko elkar laguntza, DGTri ibilgailuei buruz egindako informazio eskaerak, beste zerga administrazio batzuei egindako informazio eskaerak).

— Kanpoan presentzia handiagoa izango da, informazioa lortzeko eta enbargoak egiteko.

15. IIEE y otros impuestos medioambientales.

a) Se analizará la información del SII facilitada por el resto de administraciones, de cara a detectar no declarantes, principalmente del Impuesto Especial sobre la Electricidad, que no atiendan correctamente a los puntos de conexión del Concierto Económico.

b) Se analizará la correcta aplicación de exenciones y reducciones a sus clientes por las comercializadoras de electricidad partiendo de la información que deben suministrar desde octubre de 2021 en la liquidación del Impuesto Especial sobre la Electricidad.

c) Comprobaciones de las solicitudes de devolución.

d) Cruce de datos entre IAE y solicitudes de devolución de gasóleo profesional.

e) IGFEI e IEEPNR: Comprobación de las liquidaciones presentadas y la información contable obligatoria en estos impuestos.

16. Actuaciones de regularización de los tributos locales: IBI e IAE.

a) Actualización de titularidades según escrituras de compra-ventas, de datos catastrales según escrituras de Obra Nueva, División Horizontal, Segregaciones, agrupaciones, compra-ventas sujetas a IVA, de cartografía de los parcelarios, de fotografías aéreas de los municipios.

b) Elaboración de valoraciones de bienes para diferentes administraciones, departamentos, secciones, sujetos pasivos.

c) Control y comprobación de los impresos U-4 (Obras Nuevas) y su documentación adjunta para el alta de las nuevas fincas.

d) Comprobación del importe neto de cifra de negocios de grupos empresariales incluyendo los que el control recae en personas físicas y de sujetos pasivos fuera de Gipuzkoa declarados mediante el modelo 842.

e) Comprobación de las adjudicaciones de contratos administrativos de la Diputación Foral y de los ayuntamientos de Gipuzkoa para la regularización de epígrafes y ámbitos en IAE.

f) Comprobación de los metros cuadrados vendidos declarados por los promotores inmobiliarios.

g) Tramitación de las actas de inspección tramitadas por los ayuntamientos.

17. Actuaciones de regularización y cobro en el ámbito de la recaudación.

En el ámbito de la recaudación, las actuaciones a llevar a cabo no sólo tienen como objetivo el efectivo cobro de la deuda o la lucha contra el fraude mediante el descubrimiento de bienes y derechos suficientes para el pago de la misma. Las actuaciones también persiguen un efecto desincentivador en relación con el fraude fiscal en fase recaudatoria y deben favorecer el pago espontáneo, aunque éste no se produzca de forma inmediata. Teniendo en cuenta lo anterior, se realizarán las siguientes actuaciones de regularización y cobro:

a) En la fase recaudatoria:

— Embargos de bienes y derechos de realización inmediata y de realización a medio plazo para asegurar el cobro de la deuda.

— Requerimientos individualizados y colectivos para la práctica de embargos (relación de bienes y derechos, cuentas, informes de actividad y escrituras a través del convenio con los notarios, asistencia mutua con otros estados de la Unión Europea, vehículos a la D.G.T., solicitud de información a otras administraciones tributarias).

— Una mayor presencia en el exterior para la obtención de información y la práctica de los embargos.

EK\CV GAO-I-2024-02508

— Erantzukizunaren deribazioak. Ikerketa jarduketekin jarraituko da araudian jasotzen diren egitatezko kasuak gertatzen direla egiaztatzeko eta erantzuleei zerga zorren ordainketa exijitzeko.

— Erantzukizunak deribatzeko jarduketen esparruan, eta konkurtso prozedurei dagokienez, arreta berezia jarriko da masarik gabeko konkurtso kasuetan jarduteko aukerak aztertzeko.

— Ordaindu gabeko zorra kontrolatzea, hura murrizten saiatuz eta zaharrena berrikusiz. Huts egindako espedienteak berrikusiko dira, espediente horietan egoera mantentzen dela egiaztatuz.

— Neurriak hartuko dira administrazioaren arintasuna areagotzeko, sortzen diren gorabeherak eta zerga-bilketako egintzen aurka aurkezten diren berraztertze errekurtsoak lehenbailehen ebatziz.

— Zordun handiek jarraipen berezia izango dute, haien ondarearen bilakaerari erreparatuz, egon litezkeen ondare hustuketak detektatzeko.

— Enkanteen sistema elektronikoa ezartzen jarraituko da, lizitatzaile kopuru handiago baten presentzia bultzatzeko.

b) Konkurtso prozeduren esparruan, prozedura horien mende dagoen kreditu publikoa defendatzen jarraituko da, jarduketa hauek direla medio:

— Zor konkurtsala: zor konkurtsalari buruzko ziurtagiriak prestatuko dira, aurrez ziurtatutako zorraren onarpena kontrolatuko da, prozeduretan aurkeztutako dokumentazioaren eta txostenen analisiaren bidez, eta, oro har, konkurtso prozeduran aurkeztutakoak kontrolatuko dira: hartzekodunen zerrenda, ondasun eta eskubideen inbentarioak eta abar.

— Errekerimenduak proposatuko dira, beharrezkoa denean, edo behar diren intzidenteak aurkeztuko dira prozedura judizialean.

— Konkurtso kasuetan, zorraren ordainketa kontrolatuko da, bai konkurtso aurreko fasean, bai likidazio fasean, bai hitzarmen fasean. Era berean, zorretan pribilegioak edo ordainketa planak onartu direnean edo behin-behineko salbuespenak eman direnean, akordio singularrak hartuko dira ez-betetze kasuan bide judizial edo administratibotik zilegi diren jarduketak gauzatuz.

— Jarduketak egokituko dira konkurtso prozedurak kudeatzeko ezartzen diren sistema telematiko berrietara: Konkurtsoen Erregistro Publikoko enkanteen ataria, mikroenpresen zerbitzu elektronikoa, mikroenpresen ondasunak likidatzeko plataforma…

— Mikroenpresen aurkako prozedura berezian, zorraren ordainketa kontrolatuko da prozedura hori jarraipen prozedura bat izan edo likidazio prozedura bat izan.

— Mikroenpresen konkurtso prozeduraren edo prozedura bereziaren faseetan egin beharreko jarduketak koordinatuko dira departamentuko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzuekin.

c) Ordainketen gerorapen eta zatikapenen esparruan, jarduketekin jarraituko dira gerorapenak edota zatikapenak exijitzen dituen baldintzak arrazionalizatu eta eguneratzeko, eta, batik bat, web bidez egiten diren gerorapen edota zatikapen eskaeretan. Bereziki:

— Jarraipena eta kontrola egingo da ordainketa zatikatzeko espedienteak bermea aurkeztu beharretik salbuetsita daudenean, zergadun horien gainerako zorren egoerari erreparatu behar zaionean eta ordainketa plana zorrotz betetzen dela ziurtatu behar denean.

— Gerorapen edo zatikapen espedienteen jarraipena eta kontrola egingo da haietan bermea aurkezteko obligazioa ezarri denean: zordunaren egoera begiratuko da, eskainitako bermeena eta ordainketa plana betetzeko erarena.

— Derivaciones de responsabilidad. Se continuará con las actuaciones de investigación para acreditar la concurrencia de los supuestos de hecho previstos en la normativa para exigir a los responsables el pago de las deudas tributarias.

— También en el ámbito de las derivaciones de responsabilidad, y en relación con los procedimientos concursales, se prestará especial atención al análisis de las posibilidades de actuación en los supuestos de concursos sin masa.

— Control de la deuda pendiente, procurando la reducción de ésta, revisando la deuda más antigua. Revisión de fallidos, comprobando que se mantenga la situación en dichos expedientes.

— Medidas para incrementar la agilidad administrativa, resolviendo los incidentes y los recursos de reposición contra los actos recaudatorios en el menor tiempo posible.

— Especial seguimiento de grandes deudores, vigilando su evolución patrimonial para detectar posibles vaciamientos patrimoniales.

— Continuar con la implantación de un sistema electrónico de subastas para favorecer la presencia de un mayor número de licitadores.

b) En el ámbito de los procedimientos concursales, se continuará con la defensa del crédito público sometido a los mismos llevando a cabo las siguientes actuaciones:

— Deuda concursal: confección de certificados de deuda concursal, control del reconocimiento de la deuda previamente certificada mediante el análisis de la documentación e informes aportados en los distintos procedimientos, y en general, control de los presentados en el procedimiento concursal: lista de acreedores, inventarios de bienes y derechos, etc.

— Proponer en caso necesario, los requerimientos oportunos o plantear los correspondientes incidentes en el procedimiento judicial.

— Control del pago de la deuda en caso de concurso en fase pre-concursal, de liquidación y en fase de convenio. Igualmente, a través de acuerdos singulares en caso de deudas con privilegio o de planes de pago en caso de concesión de exoneraciones provisionales, llevando a cabo las actuaciones en vía judicial o administrativa que correspondan en caso de incumplimiento.

— Adecuación de las actuaciones a los nuevos sistemas telemáticos que se vayan implantando para la gestión de los procedimientos concursales: portal de subastas del Registro Público Concursal, servicio electrónico de microempresas, plataforma para la liquidación de bienes de microempresas…

— Control del pago de la deuda en el procedimiento especial para microempresas tanto en el caso de procedimientos de continuación como de liquidación.

— Coordinar con los distintos Servicios del Departamento y de la Diputación Foral de Gipuzkoa de las actuaciones a llevar a cabo en las distintas fases del procedimiento concursal o especial para microempresas.

c) En el ámbito de los aplazamientos y fraccionamientos de pago, se continuará con las actuaciones de racionalización y actualización de las condiciones para acceder al aplazamiento y/o fraccionamiento de pago, principalmente en aquellas solicitudes de aplazamiento y/o fraccionamiento de pago que se llevan a cabo vía web. Se incidirá en:

— Seguimiento y control de los pagos en los expedientes de fraccionamiento de pago sin obligación de presentar garantías y de situación del resto de las deudas de esos contribuyentes y del estricto cumplimiento del plan de pagos.

— Seguimiento y control en los expedientes de aplazamientos/fraccionamientos en los que exista obligación de presentar garantías: situación del deudor, de las garantías ofrecidas y del cumplimiento del plan de pagos.

— Informazioa lortuko da eman beharreko gerorapenen egokitasuna eta baldintzak aztertzeko, eta, besteak beste, errekerimendu indibidualizatuak egingo dira gerorapen eta zatikapen eskaera horiei begira.

— Zerga kudeaketaren arloan egokitzapenak egingo dira ahal den azkarren, zerga figura berriei dagokienez gertatzen diren aldaketetara moldatzeko.

— Actuaciones de obtención de información para el análisis de la conveniencia y condiciones de los aplazamientos a conceder que incluyen requerimientos individualizados para analizar las solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos.

— La adaptación inmediata a las modificaciones que se producen en el ámbito de la gestión tributaria en relación con nuevas figuras tributarias.